

Memoriaren zirrikituetatik

Juanita Eskubiren aitak bertatik bertara ezagutu zuen Durangoko bonbardaketa. Agustín Eskubik orain aste bi eman zuen azken hatsa, Ingalaterran. Juanitaren oroitzapenen bidez, Eskubi familiaren bizitza gogora ekarri du ANBOTOK. • 5

LENIOR ELORRAGA

“Auzibidea ez litzateke artxibatu behar eraso gaizatu zutenen datuak Italiari eskatu barik”

Anaís Franquesa Griso
Durangoko kereilako abokatu • 4



“Bonbardaketatik babesteko, aitzurragaz zanga bat egin zuten eta hantxe sartu ginen”

María Esperanza Igarza
Elorrioko bonbardaketaren lekukoa • 6



Ekainaren 11n zabaldu gura dute Iurretako Aquaparka

Iurreta | Egun osorako sarrera bakarra egongo da: iurretarek 12 euro ordainduko dute, ume zein heldu. Gainontzekoek, berriz, 16 euro.

11. orrialdea



Durango klownaren katedrala bilakatuko da, seigarren biderrez

18. orrialdea

1937
- Martxoak 31 -



07:00 Soria (Espainia). Aviazione Legionariako 213. eta 214. eskuadriletako 9 hegazkin bonbaketari Durango eta Elorriorantz irten ziren.

08:00 Logroño (Espainia). 18 ehiza-hegazkin eraso taldera gehitu ziren.



M31 • 08:30 Elorrio. 213. eskuadriko bonbaketariak heldu ziren, 9 ehiza-hegazkinek lagunduta. 50 kiloko 88 bonba jaurti zituzten, gehienak Eleizalde inguruan, baina baita Berrio-Otxoa kalean ere. 7 herritar hil zituzten gutxienez.



M31 • 08:30 Durango. Kuruziaga kaletik 214. eskuadriko 3 bonbaketari sartu ziren, 9 ehiza-hegazkinek lagunduta. Bakoitzak 50 kiloko 20 bonba eta 20 kiloko 4 bonba su-eragile jaurti zituzten erasoaldian. Kuruzesantu ermita, Kuruziagako kurutzea eta Jesuitetako eliza hondatu zituzten. Abadea eta 26 eliztar hil ziren.



M31 • Andra Maria. Elizpe ingurua jendez beteta zegoen, merkatua zegoelako. Eliza eta alde zahar ingurua suntsitu zituzten. Bonbardaketa amaituta, ehiza-hegazkinak 400 metrotara baxatu, eta jendea metrailatzen hasi ziren.



ELORRIO

Jesuiten elizako paradoxa: frankistek 37ko martxoan suntsitu zutena frankistek bedeinkatu zuten gero

75 urte bete dira, aurtan, San Jose Jesuitetako eliza berreraiki eta inauguratu zenetik

DURANGO • ARITZ MALDONADO

1937ko bonbek kaltetu zuten eraikinetako bat Jesuitetako eliza izan zen. Meza denboran gertatu zen bonbardaketa, eta, horren ondorioz, hogeita bi lagun hil ziren bertan, tartean, meza ematen ari zen Rafael Bilalabeitia abade jesuita eta hari laguntzen aritutako Jose Antonio Luengas.

Bonbardaketaren ostean, Andra Mariko eliza 1939ko urtarriaren 1ean inauguratu zuten berriro; Jesuitetako eraikinak lau urte gehiago behar izan zituen. Paradoxikoki, faxistek eraitsi zutena faxistek eurek bedeinkatu zuten atzera. Jesuitetako elizak 1943ko San Jose egunean ireki zituen ateak oster, ospe handiz. Inaugurazio ekitaldiaz Francisco Javier Lauzirika iurretarra arduratu zen. “Frankista amorratua zen, eta Oviedon obispo izatera

iritsi zen”, azaldu du Jon Irazabal historialari eta Gerediaga elkarteko kideak. Elizkizunera joandakoen artean, bestalde, garaiko udaleko kideak, Francoren justizia ministroa eta gobernadore zibila aipatzen ditu Irazabalek.

Aniztasunaren isla

Horrelako erasoetan gertatu ohi den bezala, Durangoko sektore

“Tragedia bikoitza izan zen karlistentzat; senideak galtzeaz gain, isildu beharra zuten”

askotakoak izan ziren biktimak, tartean, familia ezagunetako hainbat kide. Jesuitetako eliza-ko erasoan, oso nabarmena izan

zen hori, Irazabalen berbetan. “Durangoko karlistentzat tragedia bikoitza izan zen, izan

ere, gerra irabazi arren, senitartekoak zelan galdu zituzten isildu beharra zuten”, azaldu du historialariak. Frankismoak iraun zuen urteetan, aitormen moduko bakarra eduki zuten senideek: 1943ko martxoaren 31n, bonbardaketaren seigarren urteurrenean, meza berezia egin zuten hogeita bi hildakoen omenez. “Publikoki egindako funerar bakarra izan zen, eskela eta guzti; zentsura gairatu zuten, gauza arraroa garai horretan,

eta, ziurrenik, ezikusiarrena egin zutela ekiditeko egin zen”, adierazi du. Eskolan zegoen kuartela, eta bonbardaketak bertan harrapatu zuen 23 urteko Miguel Zabala soldadu gaztea, Kirikiño batailoikoa. Bertan hil ziren, baita ere, Itziar Belaustegigoitia eta Silvestra Zugazartaza Oromiño auzoko irakaslea, besteak beste. Hildakoen omenez, bi olana ezarriko dituzte Jesuiten kanpoaldean, garaiko argazkiekin eta hildakoen izen-abizenekin.



Ezkerretara, martxoaren 31ko bonbardaketaren ostean; eskumatara, berriz eraikita 1943an.



M31 • 17:30 Arratsaldean beste erasoaldi bat burutu zuten. Goizean hildakoen gorpuak hilerrira eramaten hasi ziren herritarrak, eta faxisten 5 hegazkinen horien aurka jo zuten, metrailaketekin eta bomba su-eragileekin. Eraso gehiagoren beldurrez, bi hobi komun egin eta 84 lagun lurperatu zituzten han.

Datuak

- **336** hildako
- **281** bomba
- **229** etxe hondatuta
- **14.849** kilo leherkari



M31 • 17:30 Beste 3 hegazkinen tren geltokia txikitu zuten. 100 kiloko 13 lehergailu, 50 kiloko 20 eta 15 kiloko 56 bomba su-eragile bota zituzten.



Apirilaren 2a. Ezkurdin, Batzokian, Andra Marian, ospitalean eta geltokian 100 kiloko 10 lehergailu eta 50 kiloko 36 jaurti zituzten.



Apirilaren 2a. 213. eskuadrilako hegazkinen Mañaria gainetik egin zuten eraso, Durangora bidean.



DURANGO



MAÑARIA

Faxisten eraso gupidagabea gogoratu eta biktimak omentzeko ekitaldi sorta

Martxoaren 31n, Benita Uribarrena parkean eta Andra Mariko elizpean egingo dituzte oroimen ekitaldiak

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

1937ko martxoaren 31n eta apirilaren 2an eta 4an, Durangoko eta Elorrioko gizarte zibilaren aurkako bonbardaketa gupidagabea burutu zuten kolpistek. 336 hildako eragin zituztela uste da, eta etxe ugari

suntsitu zituzten. 81 urte betetzen diren egunotan, sarraski hura gogoratzeko eta biktimak omentzeko ekitaldiak antolatu dituzte udalak eta Gerediagak.

Mola jeneralaren aginduz Italiako Aviazione Legionariako

militarrek egindako erasoagatik justizia bila dabil udala, iazko uztaillean kereila aurkeztu zuenetik. Epaileak atzera bota berri du auzia, eta instituzioak errekurritu. Aitziber Irigoras alkateak azaldu du momentuz ez dagoela nobeda-

derik auzi judizialari dagokionez. Gerediaga elkarteak, Durango 1936 eta beste zenbait elkarte ere badira kereilaren sustatzaile.

Benita Uribarrena parkean

Bonbardaketagaz lotutako ekitaldiei dagokienez, aipagarria da gerra zibileko biktimak oroitzeko udalak antolatzen duen ekitaldia

Udalak antolatzen duen ekitaldia Benita Uribarrena parkean egingo da, hilerrian barik

Benita Uribarrena parkean egingo dela, lehen aldiz, hilerrian barik. Leku horretan, lore eskaintza bat egingo dute 08:30ean, lehen erasoaren orduan. Ekitaldi nagusia, ostera, 12:00etan izango da, emakume antifaxistaren izena daraman parkean (Museo atzean). Irigorasen esanetan, hilerria baino gertuago dagoen eremu batean egitea

izan da ekitaldia lekuz aldatzeko arrazoia, jende gehiago joan ahal izateko. Durango 1936 elkarteak ekitaldi hori kritikatu izan du, kutsu erlijiosoagatik eta gerra zibileko alde bietako biktimak denak batera omentzeagatik.

Gerediaga elkarteak eta Kriskitinek Andra Mariko elizpean egiten den ekitaldiari utsiko diote

Alkateak dio memoria eta etorkizuna bateratuko direla ekitaldiekin, "berriro horrelakorik ez gertatzeko kontzientzia gure egiteko". Pilar Rios alkateordearen iritziz, ikastetxeetan "lan ona" egin dute ikasleekin, *Book Trailer* lehiaketagaz.

Andra Mariko ekitaldia

Gerediaga elkarteak eta Kriskitinek Andra Mariko elizpean egiten den ekitaldiari utsiko diote hilaren 31n, 20:00etan. Horrez gainera, Arantza Atutxa elkarteak kudeatzaileak gogoratu du bisita gidatuak ere antolatuko dituztela egunean bertan; 16:30ean, gaztelaniaz, eta 18:00etan, euskaraz. 94 681 80 66 telefonora deituta eman behar da izena.



Egitariaren aurkezpena egin zuten Arantza Atutxa Gerediaga elkarteak kudeatzaileak eta Irigoras eta Rios udal arduradunek.

“Krimen hain larrien aurrean ezin da auzibidea artxibatu ikerketan diligentzia bakar bat egin barik”

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko bonbardaketak gauzatu zituzten abiadore italiarren aurkako kereila jarri zuen, iaz, Durangoko Udalak. 24 ordura kereila onartu zen arren, Durangoko epaitegiek artxibatzea erabaki zuten, urtarri-laren 15ean kaleratutako ebazpenen. Udalak errekurritu egin du erabaki hori. Anaïs Franquesa abokatuak du auzibide honen ardura. Bartzelonako bonbardaketen kereilan ere badabil lanean.

Durangoko epaitegien ebazpenaren arabera, ematen du kereilaren oinarrian dagoen azterketa historikoa zalantzan jartzen dela.

Harrigarria da. Bonbardaketak ehunka laguni eragin zien eta, gainera, espazioaren suntsiketa itzela gertatu zen. Beraz, autoa sorpresa handiz irakurri genuen, batez ere argumentarioagatik. Ildo horretatik, egia judizial bat beharrezko ez dela esatea justizia trantsizionalaren nazioarteko printzipioen aurka doa. Egia, justizia, erreparazioa eta errepikatuko ez den bermea. Egia ezagutzea beharrezkoa da edozein trantsizio prozesutarako, are gehiago gizateriaren aurkako krimen hain larrien inguruan. Horretan, epaitegiek paper garrantzitsua dute. Beraz, ez gaude ados egia historia liburuetan ezarri behar dela diotenean. Garrantzitsua da errekonozimendu hori, eta egia judizialek ere pasatu behar da

Autoa irakurrita, zein balorazio egingen duzue?

Lehenik, behin-behinekoa da. Errekurritu egin dugu Probintzia Auzitegian, eta ebazpen horren zain gaude. Argi dugu Durangon gertatu

zena ikertu egin behar dela. Gainera, aurretik egin barik zegoen ahalegin bat egin da informazioa biltzeko. Aurkeztu dugun txostena norabide horretan doa. Bonbardaketa parte hartu zuten pertsona guztien izen-abizenak jasotzen ditu. Beraz, gutxienez oinarriko instrukzio diligentziak egin beharko lituzkete. Hau da, pertsona horiek bizirik dauden esatea eta Italiaren aldetik informazioa jasotzea. Auto hau testuinguru zehatz batean eza-gutu genuen. Aste batzuk lehenago, Auzitegi Konstituzionalak ez zuen tramitera onartu Gasteizko krimenak ikertzeko errekurtsioa. Era berean, Bergarako epaitegiak artxibatu egin zuen Elgetan gertatutako krimenen auzibidea. Harritu egiten gaitu, izan ere, auzibide honen ezaugarrietako bat da kereila jarri eta 24 ordura onartu zela. Ematen zuen ikertzeko jarrera zegoela, eta espero dugu oraindik ere egotea, artxibatzea erabaki den arren.

Errekurtsioa zertan oinarritu duzue?

Krimen hain larrien aurrean ezin da auzibide bat artxibatu ikerketan diligentzia bakar bat egin barik. Uste dugu Konstituzioko 24. artikulua urratzen ari dela, benetako babes judiziala babesten duena. Egileen identifikazio horiekin guztiekin eskatzen duguna da, behintzat hasierako izapideak egitea eta jakitea pertsona horiek oraindik bizirik dauden eta non dauden. Beraz, ez litzateke artxibatu behar Italiari datu horiek eskatu barik. Egia historikoari dagokionez, gertatutakoa ukatu egiten da ia autoan. Ia zalantzan jartzen da bonbardaketa existitu zela ere. Zentzu horretan, azpimarratzen dugu deskribatzen



Anaïs Franquesa Griso
Abokatua

Vilafranca del Penedès
| 1983

ditugun gertaerak oso zehatzak direla eta egileak ere identifikatuta daudela. Bestalde, frankismoaren krimenen inguruko ikerketaren doktrina ezartzen duen Auzitegi Goreneko 101/2012 sententzia kasu honetan ez dela aplikagarria defendatzen dugu. Bere momentuan gai hau Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren aurrean oso ondo argudiatuta dago, antzerako ezaugarriak dituen prozedura batean. Atzerritarrek egindako erasoak izan zen, eta ez momentu horretan borrokan zebiltzan bi parte aldetik. Beraz, horregatik bakarrik, ez litzateke Amnistiaren Legea aplikatu behar. Eta gogoratu behar da gizateriaren aurkako krimenak direla, eta, beraz, ez direla preskibatzen.

Auzibide ugari bertan behera gelditu diren arren, mota honetako beste prozedura bik bere bideari jarraitzen diote Sorian eta Bartzelonan. Durangokoak zein ibilbide izan dezake?

Auzibideak jarraitu beharko luke, baita gainerakoek ere. Baina egia da ezberdintasuna dagoela, frankismo sasoian gertatutako krimenen inguruan Amnistia Legearen inguruan egiten duten interpretazioagatik, nazioarteko zuzenbidearen kontrako dena. Auzitegi Goreneko doktrina dela-eta, estatu espainiarrean momentu honetan zaila da frankismoaren sasoian gertatutako krimenak ikertzea. Horregatik, kereila bat dago Argentinan. Aldiz, atzerriko potentziek gauzatutako krimenak — une horretan estatu espainiarren gerra deklaratu barik zeuden herrialdeen aldetik — ez dira Amnistiaren Legearen irizpideetan sartzen. Beraz, horregatik, krimen hauek

ikertu egin behar dira. Bartzelonan Probintzia Auzitegiaren ebazpenak ikertzea agindu zuen. Uste duguna da Durangoren kasuan ere bide horri jarraitu beharko litzaikeela. Esperantza hori badugu behintzat. **Momentu honetan, Bartzelonako kereila zein fasetan dago?**

Durangoko kasua berriro irekiko balitz egongo ginatkeen egoeran dago. Bonbardaketa gauzatu zuten abiadoreak identifikatuta ditugu. Momentu honetan, Italiaren erantzunaren zain gaude, pertsona horiek non dauden jakiteko eta prozedura beraiei kontra zuzendu ahal izateko. Italia ez dabil erantzuten behar lukeen bezala. Horregatik, garrantzitsua da beste prozedura batzuk ere zabaltzea. Gertaera hain larrien aurrean onartezina da herrialde horren jarrera. Italiak ez du sekula barkamen publikorik eskatu. Beraz, ez da sekula erreparazio saiakerarik egon.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko martxoaren 23a
16. urtea - 714. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Eneritz Urrutibeaskoa Elordi eta Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Juanita Eskubi Burns
Agustin Eskubiren
alaba
Farnborough
(Ingalaterra) | 1956

“Nire aita eta 8 urteko Nikolas bere anaia Ingalaterrara bidali zituzten, Habana itsasontzian”

Durangoko bonbardaketa bertatik bertara bizi zuen Agustin Eskubik. Juanita Eskubi alabaren bidez, bere oroitzapenak gogora ekarri ditu ANBOTOK.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Gerrako umea izan zen Agustin Eskubi Urtiaga (Durango, 1921-Ingalaterra, 2018). Anaia, Juan Eskubi Urtiaga, STVko eta ANVko kidea zuen, Durango-ko defentsa batzordeko burua. Frankistek atxilotu eta heriotzera kondenatu zuten. 1938ko urriaren 24an fusilatuta hil zuten Derioko hilerrian. Agustin Ingalaterrara bidali zuten. Han egin zuen bizimodua eta hantxe eman zuen azken hatsa orain bi aste. Juanita Eskubi Agustinen alabak familiako zauriei buruzko gogoeta egin du.

Aitak martxoaren 31ri buruz zer kontatu zizun?

Aita meza-mutila zen elizan. Bonbardaketa amaitu zenean, jendeak gorpuak atera zitzaizkien jakinarazi zuen herri guztian, danbor bat eskuetan. Era berean, jendea ateratzen ibili zen. Bere lagun asko hil ziren meza hartan. Aitak zioen berriro ikusi gura ez zituen irudiak

zirela. Umeek eta haien egoerak hunkitu zuten gehien.

Zelakoa zen zure aita?

Azeria zen. Kontatu zuenez, bonbardaketaren ostean baloi baten tamainako txokolate zatia hartuta egin zuen ihes. Durangotik Deustura joan zen, osaba-izebengana. Irudimena erabiltzen zekien egoera zailetatik irteteko. Nagusitan ere bai. Gaztetan bere familiarengandik banatu zuten eta bizimodua bere aldetik egiten ikasi zuen.

Agustinek erbestea ezagutu zuen. Zelan heldu zen Ingalaterrara?

“**Ingalaterran, aita eta Nikolas anaia bost urte egon ziren elkar ikusi barik**”

Aitak 16 urte zituen 1936-1937an, eta esango nuke bere amak barikuan sartu zuela, arazoetan sartu ez zedin. Pentsa amama Juanitaren egoera. Seme nagusia kartzelan, senarra kartzelan eta bi semegaz zegoen. Horrela, aita eta 8 urteko Nikolas bere anaia Ingalaterrara bidali zituzten, Habana itsasontzian.

Zer topatu zuen Ingalaterran?

Mutil nagusiak Liverpooleko erreformatario batera bidali zituzten, eta han ez zen gustura egon. Janari aldetik izugarria ei zen. Azkenean, nire aitak handik joatea erabaki zuen. Hegoaldera joan zen, eta han bikote ingeles bat ezagutu zuen. Familia honek etxean hartu zuen. Gizona zientzialaria zen eta emakumeak literatura irakasten zuen, Cambridgen. Ostean, nire ama ezagutu zuen eta ezkontzea erabaki zuen. Amak ere erbestea ezagutu zuen. Irlandako gosetetik ihesi joan zen Ingalaterrara.

Nikolas anaiaz zer gertatu zuen?

Umerik eduki ezin izan zuen bikote kuakero batek hartu zuen eta hezkuntza bikaina izan zuen. Harrow ikastetxean ikasi zuen. Bere ingelese oso elegantea zen.

Bi anaiak noiz elkartu ziren?

Nikolasek soldadutza egin baino apur bat lehenago elkartu ziren. Bost urte egon ziren elkar ikusi barik, elizak oztupoak jartzen zitu elako. Nikolasek uste zuen anaia nagusia beragaz ahaztu zela, baina urteekin konfiantza falta hori desagertu egin zen. 8 urteko ume bati zaila egin zitzaion egoera ulertzea. Nikolasek erizaintza ikasi zuen. Pentsa, Nikolas soldadutza egitera etorri behar izan zenean nire aitak

erdaraz hitz egiten irakatsi behar izan zion. Nikolas euskaldun batezagaz ezkondu zen Ingalaterran eta bikotekideagaz hona etorri zen gero.

Agustinek zure amagaz Ingalaterran gelditzea erabaki zuen?

1955ean Euskal Herrira etorri ziren. Irungo muga zeharkatzeaz batera, kartzelara sartu zituzten biak. Aitari iheslari izatea leporatu zioten. Gurre aitaren belaunaldikoak bizirik irauten dakiten pertsonak dira. Hitz-jario handia zuen eta irtetea lortu zuen. Amari pasaportea kendu zioten eta jipoitu egin zuten. Hizkuntza ere ez zuen ulertzen. Gelditzeko asmoagaz etorri ziren arren, Ingalaterrara itzultzea erabaki zuten. Aitak aeronautikako ikasketak egin zituen eta uste zuen Euskal Herrian lana izango zuela, baina egoera ikusita erbestera joan ziren berriro. Nire amak erbestera zuten ideia erromantiko bat zuen, baina hona etorri zenean errealitatea ezagutu



AGUSTIN
ESKUBI

zuen. Euskal Herrira egin zuten hurrengo bidaiak 1969an izan zen, baina ordu-rako pasaporte britainiarra eskuratu zuten.

“**Historia gogorra da, beti. Baina, zauriak ixteko, min horretaz berba egin behar da**”

Zure amama Ingalaterrara bisitan joan zitzaizuen?

Gerra amaitu zenean, 1958an, erdara apur bat hitz eginez, Ingalaterraino joan zen semeak bisitatzen. Frantzia zeharkatu eta barkua hartuta joan zitzaigun. Aita bere zain zegoen, portuan-edo, eta amama etxeko ateraino heldu zen. Ez dakigu zelan ere. Nire amak Anita esaten zidan, eta amamak berehala zuzendu zion, Juanita nintzela esanez, bere moduan. Nire ama koi-taduak sekula ezin izan zuen nire izena zuzen ahoskatu.

Juan Eskubi, zure osaba, fusilatu egin zuten.

Bai, anaia nagusia aitaren idoloa zen. Etorri handiko pertsona zen. Nire aitak alde guztietatik jarraitzen zion. Aitak anaia zelan salatu zuten ikusi zuen, eta zelan eraman zuten atxilotuta. Gudaria eta sindikalista zela leporatu zioten. Derion fusilatu zuten.

Memoria historikoa behar beste landu da?

Gai honetaz gehiago berba egin behar da, historia delako. Eta Argentinara joan behar badugu horretarako, joan egingo gara. Historia gogorra da, beti. Baina, zauriak ixteko, min horretaz berba egin behar da.

Zu noiz etorri zinen Euskal Herrira bizitzera?

Nik ere, agian, Euskal Herriaren ideia erromantiko bat nuen. Erdaraz berba egiten ikasi nuen eta lizentziatu nintzenean Euskal Herrira etorri nintzen. Hemengo bizimodua gustatu egin zitzaidan eta hementxe gelditu nintzen. Euskaraz ikasten ere hasi nintzen.

“Goizeko bonbardaketaren ostean elizatik irten eta odola, zaurituak... ikusi genituen, eta hori ez da ahazten”

‘Rendíos’ zioten abioietatik jaurtitako paperek; errenditu ezik, hondakinen artean hilko ei ziren. 12 urteko Igarza, neba-arreba bigaz, Argiñetara joan zen, ihesi. Aitzurragaz egindako zanga batean ezkutatuta ikusi zuen Elorrioko bonbardaketa, 1937ko martxoaren 31n.

ELORRIO • JOSEBA DERTEANO

Ikasgaia ondo barneratuta zeukan 12 urteko neskatok. Elizako kanpaiak entzuteagaz batera, korrika kanpandorrera; elizatik urrun harrapatzen bazuen, lurtean etzan eta geldi. Beraz, martxoaren 31n, goiz-goizean, kanpaiak dantzan hasi zirenean, bazekien zer egin. Goizeko lehenengo bonbak eliza barrutik entzun zituen. Arratsaldeko bonbardaketa, ordea, entzun ez ezik, ikusi ere egin zuen. “Oroitzapen horiek betirako dira”, gogoratu du.

1936ko uztailean gertatu zen altxamendua. Zu noiz konturatu zinen gerra bat hasita zegoela?

Berehala konturatu ginen. Bat-batean, errefuxiatuak eta soldaduak etortzen hasi ziren. Jendez bete zen Elorrio, eta gure etxea. Elorrio herri trankil-trankila zen eta, bat-batean, milaka lagun gehiago! Sinesteko ere! Etxe handiak hutsik geratu ziren segituan, baina kotxeak etxurreetan zeuden, eta milizianoek berehala hartu zituzten. Alde batek bestera ibiltzen ziren. Goizetan, etxeko leihotik, milizianoak plazan ikusten genituen, ilaran jarrita. Han abiatzen ziren frontera, jantzi garbiekin. Han zeuden bitartean, Jesusa gure neskameak sarri esaten zuen: “Zenbat geratuko ote dira bizirik?”. Gurasoek Parra taberna zuten eta eraikin berean bizi ginen. Etxeko goiko jangela UHP-ren [Uníos Hermanos Proletarios] batai-loiak ofizina moduan hartu zuen. Beheko jangela txikia komunikaziorako gela moduan erabili zen. Errefuxiatuak ere hartu genituen.

Nongo errefuxiatuak ziren?

Otxandioko familia bat dut gogoan. Aita, ama eta neskatila bat. Ez zuten berbarik egiten. Isilik eta logelatik irten barik egoten ziren. Gure amak esaten zuen: “Baina zer gertatu ote zaie horrela egoteko?”. Hala-ko batean kontatu ziguten bonbardaketa bat izan zutela. Guk orduan ez genekien Otxandio bonbardatu zutela, ezta bonba bat zer zen ere. Ostean ondo ikasi genuen, bai!

Bonbardaketa nagusiaren aurretik beste txikiago batzuk ere izan ziren, ezta?

Bai, batzuetan hegazkinak etortzen ziren, talde txikitik. Beti ez

zituzten bonbak botatzen; batzuetan, metrailadoreekin egiten zuten tiro. Bergararik Intxortarantz botatako kanoikadak ere heltzen ziren. Hegazkinak zetozenean, lehenengotan agur egiten genien, pozik, ez genekielako zertan zetozen. Gurasoek errieta egiten ziguten. “Plazatik ez alden du”, agintzen ziguten etxean. Plazan olgetan ibiltzen ginen eta, bat-batean, su kanpaiak! Abisuak ziren eta denok elizako kanpandorrera joaten ginen korrika. Ondo ikasita geneukan. Elizako izkina batean zakuekin egindako horma bat zegoen eginda, pasillo batez. Korupea ere zakuz beteta zegoen, txabola bat izango balitz moduan. Zenbat zaku!

“**Plazan olgetan ibiltzen ginen eta bat-batean su kanpaiak! Abisuak ziren eta kanpandorrera joaten ginen korrika**”

Etxearen alboan zeneukaten eliza.

Bai, gertu geneukan. Kanpaiek ortuan harrapatzen bagintuzten, artotzan eta arbola azpian ezkutatzuten ginen. Horixe zen irakatsi ziguten lehenengo gauzetako bat: lurrera bota, etzan eta geldirik! Edonon geundela ere. Behin hegazkin bi etorri ziren eta bidean harrapatu ninduten. Bonba baten zarataren ondorioz, belarririk odoletan hasi nintzen. Hori ez zait sekula osatu. Oraindik ere iturri bat zabalik balego moduan entzuten dut belarri batetik. Ohitu arte, urte askoan, kostea egin zitzaidan lo hartzea. Beste behin, kanoikada bat plazara heldu zen. Etxe baten hegala jo eta metraila-zatiak gure tabernaraino heldu ziren. Sabai osoa erori zitzaigun.

1937ko martxoaren 31. Zelan gogoratzen duzu bonbardaketa nagusia?

Hura izan zen izatekoa! 07:00 inguruan kanpaiak jotzen hasi ziren. Sekula ez ziren hain goiz etorri hegazkinak. Mundu guztia kalera irten zen, etxeko arrokekin, galtzontzillotan, kamisoeekin, mantekin...


Elizako babeslekura joan ginen, baina, ezer ez. Etxera itzuli, gosalduta eta ohera joan nintzen. 09:00etan, berriro kanpaiak. Berriro elizara. Santa Anako komentuari ondoko txabola txikituta geratu zen. Bonba su-eragileak ziren eta usaina kanpandorrera heldu zen. Ezin arnasarik hartu, beroa, zalaparta... Esan zitekeen bertan hilko ginela denok. Itzela izan zen. Elizatik irten ginen eta plaza jendez beteta zegoen; odola, zaurituak, zalaparta, jendea negarrez... Hori ez da ahazten, ez da ahazten. Gure etxea zikinduta zegoen. Halako batean, beste abioi bat edo bi, 12:00 aldera. Paperak bota zituzten. Hau jartzen zuen papertan: *Rendíos elorrianos. Si no os rendís moriréis bajo los escombros de vuestras casas.* 15:00etan itzuliko ei ziren.



Maria Esperanza Igarza Zubiate

12 urte zituen Elorrio bonbardatu zutenean.

Elorrio | 1924



Zer egin zenuten hori irakurtzean?

Bertan hil behar gintuztela pentsatu nuen. Herriko jende guztia desagertu egin zen. Tabernan mugimendu handia zegoen, amak ez zuen kasu egiteko astirik; 15:00ak bertan zeudela iruditzen zitzaidan eta, ezer esan barik, lau eta zortzi urteko neba-arrebak hartu eta amamodura joatea erabaki nuen. Abiatu ginen, eta bide erdian konturatu nintzen ezin ginela hara joan. Argiñetara joan ginen. Ez zegoen inor. Klara izeneko neska bat agertu zen. “Zer egiten duzue hemen?”. Eta nik: “Hil egin behar gaituzte arratsaldean”. Gero, miliziano bat etorri zen. Han ezin ginela geratu zioen. Nik sasi artean ezkutatzeari pentsatuta neukan. “Aitzur bat bagenu!”, esan zuen milizianoak. Klarak

bazeukan bat, eta bila joan zen. Aitzurragaz zanga bat egin zuten, eta hantxe babestu ginen. Gu denbora osoan negarrez. “Sartu hemen, eta 15:00ak direnean ezta mugitu ere!” agindu ziguten. Bonbaz betetako abioi handiak etorri ziren, eta abioi bakoitzaren gainean hiru ehizahegazkin. Abioi asko Durangorantz joan ziren eta beste batzuk Elorrioren geratu ziren. “Paperak botatzen dabilta”, esan zuen ahizpak. Baina ez ziren paperak. Sua, kea, zikina... Zenbat bonba! Dena ikusi genuen. Oroitzapen horiek betiko dira.

Eta ondoren?

Berriro elkartu ginenean, Iguirian izekoren etxera eraman gintuen aitak. Amak burkoaren zorroan batu zizkigun arropak. Bakoitzak berea hartu eta hantxe joan ginen.

Gaur egun telebistan errefuxiatuak edo pateretan heltzen direnak ikustean, gu hala ibili ginela akordatzen naiz. Hilabete eman genuen han.

Oroitzapen gogorak...

Bai, benetan ere! Frankisten mehatxuaren papera, *Rendíos* zioena, gordeta izan nuen urte askoan, baina galdu egin zen. Hainbat dokumentu gorde ditut, hala ere. Bonbardaketa Elorrioko alkatea zen Ariñoren lobak behin eman zidana [goiko irudian], esaterako. Gerra Zibilaren ostean, Elorrioren jaurtitako alkate frankistak eta beste batzuek herriko hiru familia salatu zituzten: Ariño, Ugarte eta Fuldain. Gerraren erru osoa leporatzen zieten. Hori idatzi egin behar da gero! Epailak arrazoi eman zien eta herrietik bota zituzten.

Laumunarrieta, Elorrioko memoria historikoa hobitik atera gura duen elkarte

1937ko martxoaren 31 gogoratzeko Memoria Astean murgilduta daude Elorrioren, martitzenaz geroztik

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1937ko martxoaren 31n, 8:30 inguruan, italiarrek Elorrio bonbardatu zuten, Durangoz gainera. Orain urte gutxira arte Elorrioko bonbardaketaren inguruan ezer gutxi jakin izan den arren, memoria historikoa hobitik atera eta plazartzeko asmoz lanean dabilza hainbat elorriar. “Iaz 80 urte bete ziren Elorrio bonbardatu zutela, eta memoria historikoa berreskuratzeko asmoz zerbait egin behar genuela erabaki genuen elorriar batzuek”, aitortu zuen Jesus Aristegik asteon udaletxean egin duten elkartearen aurkezpean.

Iaz, esaterako, hainbat herritarrek, Elorrioko Udalaren laguntzagaz, ekitaldi sorta antolatu zuten martxoaren 31 gogoratzeko, eta aurten ere bide beretik jarraitu dute Laumunarrieta elkarteak. “Beharrezko ikusten dugu bonbardaketan hildakoak gogoratzea, hainbat elorriar hil ziren eta. Gure amak, esaterako, neba bi galdu zituen gerran”, jarraitu du Aristegik.

Bestalde, Idoia Buruaga elorrioko alkateak etorkizunera begiratzeo iragana ezagutzea beharrezkoa

delat adierazi zuen martitzenean egindako aurkezpenean, eta memoria historikoa lantzeko asmoz lanean dabilzan Laumunarrieta elkarteak kideei eskerrak eman zizkien egiten dabilzan lanarengatik.

**Bonbardaketak utzitako
aztarnak ezagutzeko
aukera egongo da gaur
arratsaldean Elorrioren**

Memoria Astea

Laumunarrieta elkartearen aurkezpenagaz, Memoria Asteari hasiera eman zioten Elorrioren. Esaterako, martitzenean eta eguenean berbaldi bi eskaini zituzten Roman Berriozabalek eta Iñaki Egañak. Jon Ander Ramos historialari durangarrak, berriz, herriko ikastetxeetan saioak eman ditu.

Bestalde, gaur, 17:30ean eta 19:00etan, 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketak utzitako aztarnak ezagutzeko aukera izango dute elorriarrek, eta zapatu goizean bisita gidatua egingo dute Intxortako frontera.



Laumunarrieta elkarteak kideak.

**Laumunarrietako kideek
beka bat aterako dute
Elorrioko memoria
historikoa lantzeko**

Elkarte herritarrei zabalik

Laumunarrietako kideek elkarte herritar guztiei zabalik dagoela eta memoria historikoa berreskuratu gura duten guztiei taldera batzeko deia egin zuten martitzenean. Bestalde, bonbardaketaren inguruko dokumentazioa biltzen dabilzala eta norbaitek informaziorik balu beraiekin harremanetan jartzeko eskatu zuten.

Horrez gain, Elorrioko Udalaren eta Gogora institutuaren laguntzagaz, Elorrioko memoria historikoa lantzeko beka bat aterako dutela jakitera eman zuen Mila Villa Laumunarrieta elkarteak kideak. “Norbaitek Elorrioko bonbardaketaren inguruko ikerketa lan bat egingo izango luke helburu Elorrioko Udalarari esker atera ahal izan dugun beka honek”, adierazi du Villak.



Zornoza elkarteak maiatzero antolatutako ekitaldian gerrako biktimak gogoratzen dituzte.

Gerra zibileko eta frankismoko biktimen zerrenda egingo du Zornotzako Udalak

Orduko indarkeriak “hobeto eta zehaztasun gehiagoz” ezagutu gura dituzte

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako azken udalbatzarrean, gerra zibileko biktimei buruzko erakunde adierazpena irakurri zuten. Sufrimendu hori pairatu zutenei izen-abizenak jarri gura dizkiete, eta “ikerketa sakona” egingo dute, “zornotzarrek bizi izandako indarkeria motak hobeto eta zehaztasun gehiagoz ezagutzeko eta biktimen zerrenda bat izateko”, adierazpenak jasotzen duenez.

Testuak gerra zibileko jazoerak —faxistek hegazkinekin Zornotzan egindako erasoaldia, esaterako— eta osteko frankismoko urte “anker eta lazgarriak” gogoratzen ditu: fusilamenduak, kartzelaratzeak, erbesteratzeak, atxiloketak, torturak... Oraingoan, lau fusilatu izan zirela dakite, eta euren izen-abizenak gogoratuz amaitu zuten

adierazpena: Luziano Iturreta, Zezilio Zabala, Aita Roman Urriaga eta Bonifacio Ormaetxe.

Gregorio Mendibilen iragana

Udalbatzarra amaitu aurretik, Bonifacio Ormaetxe fusilatua senide batek hitza hartu zuen. Oraindik ez dagoela ikerketarik eginda leporatu zion udalbatzarrari, eta horretarako aukera bat galdu zutela iaz, frankistek Zornotza hartu zuteneko 80. urteurrenean. Galdera batzuk egin eta erantzunak idatziz jasotzea eskatu zuen. Besteak beste, galdetu zuen Zornotzako kale bat zergatik deitzen den Gregorio Mendibil, falangista izan zelako. Hori baieztatzeko dokumentuak zituen esku artean. Horietako dokumento batean, Gregorio Mendibilen izena FET y de las JONS alderdiko afilia-

**Gregorio Mendibilen
iragan faxista ikertuko
dute kale bati bere izena
kendu ala ez erabakitzeo**

**Adierazpenak gerrako
eta gerraosteko urte
“ankerrak eta lazgarriak”
ere gogoratzen ditu**

tuen zerrendan ageri da. Andoni Agirrebeitia alkateak adierazi zuen galderei erantzungo dietela eta agindutako azterketaren barruan Gregorio Mendibilen kasua ere aztertuko dutela.

Faustegoienan 48 etxe gehiago eraikiko dituzte, eta horietatik 5 gazte alokairurako izango dira

Martxan dagoen plan osoa kontuan hartuta, babeseko 118 etxeetatik 16 izango dira gazte alokairua sustatzeko

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Faustegoienan babeseko 118 etxe eraikitzeko plana jarri zuen martxan udalak, eta fasetan banatu behar izan zuen uko kopuru handia egon zelako. Astiro-astiro, badao egia bihurtzen. 70 dagoeneko eginda daude, eta datozen 6 hiletan edo urtebetean beste 48ak eraikitzen hasia aurreikusten dute. Horietako bost gazte alokairurako izango dira.

Martitzeneko osoko bilkuran onartu zuten Zirarmendietako kooperatibagaz lurren salmentarako hitzarmena. Udalak gazte alokairurako erabiliko dituen bost etxe eta 930.000 euro jasoko ditu lurren trukean. 43 etxe erosi ahalko dira, 127.000 eta 165.000 euro arteko prezioekin. Interesdunek Durango Eraikitzenenera jo dezakete; gero, guztien artean, zozketa egingo da.

Faustegoienako 118 etxeen promozio osoa kontuan hartuta, ha-



Faustegoienako promozioan 70 etxe daude eraikita, eta 48 falta dira.

43 etxe erosi ahalko dira, 127.000 eta 165.000 euro arteko prezioekin

masei etxe izango dira gazte alokairurako. Alokairu programaren arautegia onartzeko azken pausoa falta da, eta, orduan, sei etxe zabalduko dizkiete gazteei; laster bost

gehituko zaizkie, eta aurten eraikiko den azken fasean beste bost egongo dira. Aldi baterako eta txandakako alokairua izango da.

Etxe kopuruaz eztabaida

Hain zuzen, alokairuko etxeen kopurua izan da udalean eztabaida eragin duena. Hitzarmena EAJK, PSE-EEk eta PPk onartu zuten, baina EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak, ez. Dani Maezturen (EH Bil-

du) eta Julian Riosen (Herriaren Eskubidea) ustez, lurren salmentatik jasoko den diru guztia etxebizitza politikan inbertitu beharko litzaiteke. Legeak horixe gomendatzen du, baina ez derrigortzen. Riosek esan zuen hitzarmena "iragandako eredu" batekoa dela, eta Maeztuk ohartarazi zuen Etxebiden izena emanda dauden 603 durangarretatik 525ek alokairuko etxea eskatu dutela.

Aitziber Irigoras alkateak (EAJ) gobernu taldeak alokairuko etxeekin duen konpromisoa nabarmendu zuen, eta Goiztidi Diaz alderdikideak esan zuen ezin dela diru guztia etxebizitzara bideratu, gero ze kostu edukiko duen jakin barik. Pilar Riosek (PSE-EE) ere proiektuaren balioa nabarmendu zuen, eta inguruko herrietan horrelakorik ez dagoela adierazi du. PPko Fran Garatek ere babestu du proiektua.

Kutsadura da durangarren kezka nagusia, udal ikerketaren arabera

DURANGO • M.O.

Udalak ikerketa soziopolitikoak landu du, 400 inkesta eginda. Kezka nagusiei dagokienez, %15,3k kutsadura aipatu dute, %15ek aparkaleku gabezia eta %10ek argiztapen publikoa. Hala ere, Durango bizitzeko leku atsegina dela esan dute inkesta bete dutenek, eta 10etik 8,2ko nota eman diote.

Bestalde, 2019ko udal hauteskundeetan alderdiek zinegotzi kopuru berria jasoko lukete, ikerketako emaitzen arabera.

Sapuetxeko eraikina legez kanpo egin zela-eta, ardurak eskatu ditu EH Bilduk

DURANGO • M.Z. / M.O.

1964an altxatu zuten Sapuetxeko eraikina, eta hasieratik legez kanpo egon da, EH Bilduren esanetan. Horregatik, arduradunen erantzukizuna eskatu gura du. Gainera, ez dago ados eraikin pribatu bat diru publikoa erabilia botatzeagaz. Udalak 425.000 euro ipiniko ditu, eta URA agentziak beste hainbeste. Herriaren Eskubideak soilik babestu du EH Bilduren eskaria. Gobernu taldearen ustez, segurtasuna hobetuko da, erreka zuzia berrituko delako.

Zunbeltz Larrea libre geratu eta biharamunean, Antton Lopez atxilotuta

Larreak 15 urte eta erdi egin ditu kartzelan; ehunka lagunek egin diote harrera Durangon

DURANGALDEA • A.Z./M.Z.

Astelehenean geratu zen libre Zunbeltz Larrea durangarra, 15 urte eta erdiko kartzela zigorra osorik bete

ostean. 17 urte zituela atxilotu zuten lehenengoz, eta 2002ko azartetik espetxean egon da, zenbait kale erasotan parte hartu izana egotzita.

Urte hauetan zehar Alcalá Meco, Los Rosales, Monterroso eta Castelloko kartzeletan egon da. Astelehenean 80 lagun inguru joan ziren

bere bila, eta ehunka lagunek egin zioten harrera Intxaurre elkartearen.

PPko sei kide ere batu ziren iguruetan, tartean Amaya Fernandez idazkari nagusia eta Raquel Gonzalez alderdiko Bizkaiko lehendakaria, harreraren aurka protesta egiteko.

Intxaurren deklarazioa

Larrea etxera etorri eta biharamunean, Antton Lopez Kubati elorria-

rra atxilotu zuen Guardia Zibilak. Preso eta iheslarien aldeko Kalera Kalera dinamikaren bozeramailetako bat da Lopez, eta Belen Gonzalez hildako presoaren omenaldian terrorismoa goretzi izana leporatuta atxilotu zuten, Miren Zabaleta, Oihana Garmendia eta Olatz Daño-beitiagaz batera. Intxaurren deklarazioa kuartelera eraman zituzten, eta han deklaratu eta gero, aske utzi zituzten laurak.



Intxaurre elkartearen egin zioten harrera Larreari.



Antton Lopez aske geratu zen deklaratu ostean. Foku

24 orduko pediatria zerbitzua eskatzeko aldarria gero eta indar handiagoa hartzen dabil

Guraso talde batek sinadura bilketa hasi du Interneten; bitartean, Osasun Saila pediatria sarea aztertzen dabil

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Zenbait gurasok Durangoko anbulatorioan 24 orduko pediatria zerbitzua ipintzea eskatu dute sare sozialetan, eta aldarri hori gero eta indar handiagoa hartzen dabil. Herriaren Eskubidearen ekimenez gaia udalean eztabaidatu dute, eta, bestalde, guraso talde batek sinadura bilketa hasi du Interneteko *change.org* atarian. Egun gutxitan 3.000 atxikimendutik gora jaso dituzte.

Gaur egun 08:00etatik 15:00etarako pediatria zerbitzua dago Durangon, larrialdi kasuetarako 17:00ak arte luzatzen dena.

Herriaren Eskubideak uste du zerbitzu hori egun osoan egon beharko litzatekeela, Gurutzeta edo Basurturaino joan beharra eduki barik. "40 kilometro dira, kasu askotan oso luzeak egiten direnak". Zerbitzuak eskualdeko 12.000 umeentzako balioko lukeela



Landakoko anbulatorioan 17:00ak arte dago pediatria zerbitzua.

azpimarratu zuen. Gainera, eskaria 17:00etan hazten dela gogoratu zuen, umeak orduan irteten direlako eskolatik. Mozioa ez zen aurrera atera, EAJ eta PSE-EEren gobernu

taldeak ordezeko bat aurkeztu zuelako. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila pediatria sare orokorra aztertzen dabilela iragarri zuten, eta lan horretan jarraitzea eskatu zieten,

Durangaldean ere zerbitzua eman ahal izateko. EH Bilduk hasierako mozioa babestu zuen, eta PPK, biak. Horrela, alkatearen kalitateko botoak hautsi zuen berdinketa.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAL
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Garbiketa

AZKARGI GARBIKETAK

Auzo elkarte, garaje eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

Dekorazioa

JAIO barnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Gazteentzako alokairu soziala sortzea eskatu dio Barrura taldeak udalari

Udalak herrian dauden etxe hutsen inguruko azterketa egitea ere eskatu du Barrurak

ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Gazteei zuzendutako alokairu soziala sortzea eskatu dio Zaldibarko Barrura taldeak udalari. Gazteentzatzat diseinatutako plan bat behar dutela diote landutako mozioan, "gazteen baldintzetara egokitua eta gure errealitateari erantzungo diona". Gaineratu dute Gazteentzako

ko Alokairu Sozialerako Programa sortzea "ezinbesteko pausoa" dela gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko.

Barrura taldeak 18-32 bitarteko gazteei bideratutako programa bat behar dela uste du, eta parte hartuko duten herritarren diru sarrerak, gehienez, 17.000 eurokoak izan

behar direla. Hortaz, lan kontratua ez litzateke baldintza izango. Era berean, gazte bakoitzak, gehienez, 120 euro ordainduko lituzke alokairuagatik, eta udaleko teknikari batek etxebizitzak egokiak diren ala ez ziurtatuko luke. Teknikariak etxea nola dagoen ere zehaztuko luke, eta etxe bakoitzean bizi daite-

keen lagun kopurua ere jakinaraziko luke.

Udalak jabetzan dituen etxeen alokairutik jasotako dirua etxebizitza politikan inbertitzea eskatu du Barrurak, eta udalak eraikin hutsak jabetzan balitu, gazteentzatzat alokairu sozialerako etxeak egitea aztertzea; psikiatrikoko eraikina jarri dute adibide bez. Egitasmoaren diseinuan gazteen parte-hartzea "ezinbestekoa" dela ere esan dute.

Alokairu soziala bultzatzeko, udalak herrian dauden etxe hutsen inguruko azterketa egitea eskatu du Barrurak; eta etxe hutsak

Zaldibarko Udalak herrian dauden etxe hutsen inguruko azterketa egitea eskatu du Barrurak

Gazte bakoitzak, gehienez, 120 euro ordainduko lituzke alokairuagatik

gazteentzako alokairu sozialera bideratu daitezkeen, udalak bitarteko lana egitea bankuekin zein jabe pribatuekin. Herriko gazteen %40k baino gehiagok egin dute bat Barruraren proposamenagaz.



Programari babesa eman dioten askotariko eragile sozialekin argazkia atera zuten martxoaren 17an.

Ganboko inguruko lanen proiektua da aurrekontuetako inbertsio nagusia

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguaztenean egindako bilkuran, 2018ko udal aurrekontuak onartu zituzten Gobernu Taldearen (EH Bildu) eta EAJren aldeko botoekin. Aurten, Ganboko inguruko lanen proiektuak izango du diru atalik handiena inbertsioetan. "Kale Irekiak prozesuan, herritarrek inguru horretan oinezkoentzat gune gehiago eta aparkalekuak antolatzea eskatu zuten. Beraz, aurten hori egitea izango dugu helburu", adierazi zuen David Cobos alkateak. Hori horrela, 151.631 euro bideratu dituzte lan horiek egiteko.

Gorka Garate EAJren bozeramaileak, berriz, Kale Irekiak-en irtendako proiektua garatzeaz "pozik" daudela esan zuen.

Amankomunazgoak papera birziklatzeko edukiontzi berri bi jarriko ditu

MAÑARIA • J.D.

Udalak birziklatzeko hainbat edukiontzi jartzeko eskatu zion Amankomunazgoari. Erantzuna jaso dute. Eskaeretako bi onartuz, Andra Mari 15 kalean eta Ebaristo Bustintza 2 kalean papera birziklatzeko kontainer bi jarriko dituzte. Hala ere, orain ez dutela kontainerrik esan dute. Berriak erosteko prozedura hasiko dute, eta helduek jarriko dituzte. Era berean, Iturrietan edukiontzi horirik behar den ala ez aztertuko dute.

134.000 euro edukiko dituzte Garain 2018ko inbertsioetarako

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Martitzenean 2018ko udal aurrekontuaren inguruko osoko bilkura egin zuten Garain. Aho batez onartu zuten plana Herriko Taldeak eta EAJk. Aurrekontuaren arabera, 134.000 euro edukiko dituzte aurtengo inbertsioetarako. Proiekturik garrantzitsuen pilotalekuko teilatua konpontzea izango da. Guztira, 90.000 euro jasoko ditu. Aipagarria da, lehenengoz, herritarrek euren iritzia eman ahal izan dutela.

"Izugarrria litzateke eskoletako jantokietan kontsumo aldaketa bat izatea eta tokiko ekoizpena bultzatzea"

Elorrixa Ekologi elkarteak aurkeztu duen manifestua Durangon plazaratu gura du Marisatsa elkarteak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrixa Ekologi elkarteak 1984az geroztik dabil lanean Elorrión. Martxoaren hasieran, elkarteak kideek beste pausoa eman zuten, eta herritarrei 'Tipi-Tapa Bagoaz! Bizimodu jasangarrietarantz' manifestua aurkeztu zuten. Manifestuaren inguruan Elorrixa kidea den Agustin Garcia Morenogaz (Elorrio, 1961) hitz egin du ANBOTOK.

'Tipi-Tapa Bagoaz! Bizimodu jasangarrietarantz' manifestua aurkeztu berri duzue. Zer da horren helburua? Manifestuaren helburu nagusia herritarrek dituzten kontsumo ohituren inguruan hausnartzea izan da. Manifestuak lau ardatz nagusi ditu gogoeta hori bultzatzeko: pertsonen zaintza bizitzaren jasangarritasunaren mugari, elikagai subiranotasuna, desazkunde energetikoa, eta ongizatearen eta bizitzaren ja-

sangarritasunaren zerbitzurako ekonomia.

Manifestu honen bitartez, zer proposatu gura diezue elorriarrei?

Elorrión aurkeztu genuen manifestuak bakoitzak bere esparru politiko eta sozialetik jasangarritasunaren bidean aldaketak egitea proposatzen dio herritar bakoitzari.

Elorrixa Elkarteak 1984az geroztik dabil lanean. Ordutik hona, jasangarritasuna hobetu egin da Elorrión?

Urte hauetan guztietan detaile txiki batzuk ikusi ditugu herrian. Esaterako, gaur egun kontsumo talde bat dago Elorrión eta hori garrantzitsua da. Bestalde, herrian

“

Manifestuaren helburu nagusia herritarrek dituzten kontsumo ohituren inguruan hausnartzea da”



Agustin Garcia Elorrixa eta Marisatsa kidea da.

badaude ekoizleak, eta esan dezakegu ekimen horiek guztiak ezinbestekoak direla gizarte jasangarri, justu eta ekitatibo bat lortzeko.

Hemendik aurrera, zer norabideri jarraituko diezue?

Produktuen kalitatea eta osasuna hobek izateko eta bertako kontsumo

moa bultzatzeko lan egingo dugu. Horrez gain, guretzat izugarria litzateke eskoletako jantokietan kontsumo aldaketa bat izatea, eta horregaz batera tokiko ekoizpen autonomoak bultzatzea eta eredu agroekologikoetarako trantsizioa sustatu ahal izatea.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Eragozpenik ezean, ekainaren 11n zabalik egongo da aquaparka Iurretan. Proiektuaren sustatzailea den Alain Arrizabalagaren berbetan, “muntatzeko eta desmuntatzeko duen zailtasunagatik munduan bakarra” den ur parkea irailaren 3an itxiko dute. Egun osorako sarrera bakarra egongo da: iurretarrak 12 euro ordainduko dute, ume zein heldu. Gainontzekoek, berriz, 16 euro. Hala ere, familia ugariarentzat hobariak aurreikusi dituzte. Aquaparka 10:00etatik 20:00etara zabalik egotea aurreikusi dute.

Ibarretxe kultur etxearen alboan eraikiko dute aquaparka, eta 4.300 metro koadro hartuko ditu. Igerilekuek 1.300 metro koadro hartuko dituzte, eta gainerakoan belar artifiziala jarriko dute. 700 lagunentzako edukiera izatea aurreikusi dute, eta 10-15 lagun kontratatuko dituzte bertan lan egiteko.

Olatu estatikoa

Igerileku nagusiak 600 metro koadro izango ditu, eta ginkana erdian. Horregaz batera, olatu estatiko bat eta 14 metroko bi txirrista egongo dira; hainbat txirrista dituen beste igerileku bat ere aurreikusi dute, eta umetxoentzat beste bat ere bai. Jatetxea eta aldagelak —dutxa eta komunekin— ere egongo dira.



Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak eta Alain Arrizabalaga proiektuaren bultzatzaileak eman dute egitasmoaren berri.

Ibarretxe ondoko aquaparka datorren ekainaren 11n zabaldu gura dute Iurretan

Egun osorako sarrera bakarra egongo da guztientzat, 16 eurokoa; iurretarrak 12€-koa

700 lagunentzako edukiera aurreikusi dute, eta 10-15 langile kontratatuko dituzte bertan lan egiteko

Udalak jarduera baimena emateko azken agiriak falta direla argitu du Arrizabalagak. Gero, orubea atonduko dute aquaparka muntatzeko. “Durangalderako aisialdirako beste alternatiba bat” da, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbe-

tan. “Herriko eta inguruetako bestelako zerbitzuei ere onura egin diezaiokete aquaparkera datozenek”, dio. “Egitasmo interesgarria izan zitekeela pentsatu dugu hasieratik”. Aurten ez ezik, hurrengo udan ere muntatu gura dute ur parkea.

‘Herri txiki, infernu handi’ saioa grabatu dute Iurretan, asteon

Herritarrentzako emanaldi berezia apirilaren 5ean egingo dute, Olaburu frontoian



Herrigunean eta baserri auzoetan ez ezik, A-8 autobidean ere grabaketa lanetan aritu ziren joan zen martitzenean.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Herri txiki, infernu handi telebista saioa grabatu zuten, martitzenean, Iurretan. Herrigunean eta Aita San Migel plaza inguruan ez ezik, Amatzan, Bakixan eta Oromiñon ere ibili dira Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleak. “Bizitasun handiko” iurretarrak egin dituzte elkarrizketak, azaldu dutenez, eta umorerik ez dute falta

Apirilaren 15ean eskainiko dute Iurretan grabatutako ‘Herri txiki, infernu handi’ saioa

izan. Iurretako dantzariekin ere egin zuten hitzordua.

Apirilaren 15ean eskainiko dute Iurretan grabatutako *Herri txiki, in-*

fernu handi saioa. Hala ere, aurretik, herritarrentzako emanaldi berezia ere egingo dute. Apirilaren 5ean izango da hori, Olaburu frontoian, 20:00etan. Hitzordu horretara bertaraten diren herritar guztiek zuzenean ikusi ahal izango dute saioa bakarrikzketaren grabaketa. Bertan parte hartzerantz animatu dituzte iurretarrak Gurrutxagak eta Pagadik.

Askondo eta Bixente Kapanaga inguruan oinezkoentzako lekua zabalduko dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bixente Kapanaga kalea noranzko bakarrekoa bihurtuko dute urria baino lehen, eta Maspera baino ezingo da irten bertatik. Askondoko biribilgunea kenduko dute, eta oinezkoentzat lekua irabazi: 400 metro koadro.

Bixente Kapanagako aparkaleku kopurua berean mantenduko dute; baita zamalanetarako gunea eta taxi geltokia ere. Hala ere, behin lanak amaituta, Zubiaurre kalea erabili beharko da herrigunera sartzeko. Askondoko biribilgunea parke txiki batek ordezkatuko du, eta horren inguruan argiak txertatuta izango dituen zurezko zorua jarriko dute; arbolak eta altzaruzko jarlekuak ere ipiniko dituzte. Era berean, Durangotik datorren bidegorriari jarraipena emango zaio Askondoraino.

Bixente Kapanagak eta Askondok bat egiten duten inguru horren zaharberitzeak 134.000 euroko inbertsioa eskatuko du. Gehien jota, ekainaren hasieran ekin gura diete lanei, eta sanmigelak baino lehen amaitu.

Zelaietako berrantolaketa planoak ikusgai Txanportan

ABADIÑO • A.M.

Martxoaren 26ra arte, Zelaieta auzoko berrantolaketa proiektuko planoak ikusgai egongo dira Txanporta kultur etxean. Bestalde, proposamenak aurkezteko aukera edukiko dute horrela gura duten abadiñarrek martxoaren 26an bertan egingo den batzarrean; udal gobernuko bi kide egongo dira Txanporta kultur etxean, 18:00-19:30 bitartean.

EH Bilduren ustetan, oster, hitzordu hori ez da nahikoa ekarpenak egiteko. “Udalak baliabideak jarri behar ditu teknikariekin parte-hartze saioak egiteko, ondorioekin proposamenen bat garatu eta hau auzotarrek bozketa bidez aukeratzeko”, azaldu dute ohar bidez.

Basoetan pago gehiegi daude eta batzuk botatzea aztertzen dabilta

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko basoetako zuhaitz nagusia pagoa da. Pagadi handiak daude. Euren egoera gertutik aztertuta, zonalde askotan elkarri kalte egiten diotela konturatu dira udal arduradunak. Zaharragoak diren pago askotatik ez dira adar berriak ernetzen, eta, hori dela-eta, udala egoera baloratzen ari da. Noizean behin, entresakak egitea izan daiteke irtenbidea. Ondoren, egur hori herritarren probetxurako jarriko lukete.

60 urtetik gorako bazkideak lortzeko kanpaina hasi du jubilatuen elkarteak

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Hirugarren Adineko Elkarteko zuzendaritza berriaren helburua 60 urtetik gorako bazkide ahalik eta gehien lortzea da. Horrela, herrian askotariko ekimenak egiteko, bidaiak antolatzeko zein herriko kultur ekimenetan parte hartzeko ahalmen handiagoa izango luketela diote. Interesatuek liburutegian eman dezakete izena, astelehenean barikua, 16:00etatik 20:00etara. Urteko kuota 12 eurokoa da.

Lanak esleituta, apirilaren amaieran hasiko dituzte Zornotzako musika eskola berriko lanak

Azken udalbatzarrean esleitu dituzte Javier de las Heras Solé arkitektoak diseinatutako musika eskolako obrak



Osasun zentro zaharra zegoen eraikina eraitsi egingo dute eta hango orubean egingo dute musika eskola.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Apirilaren amaieran hasiko dira musika eskola berria egiteko lanak eta 18 hileko iraupena izango dute. 2.570.000 euroko aurrekontua dute obrarako. Joan zen barikuko udalbatzarrean esleitu zituzten lanak. Lehenengo, anbulatorio zaharra

Lanak 18 hilabeteko iraupena izango dute. Lau solairu erabilgarri izango ditu eraikin berriak

eraitsiko dute, eta han sortutako 1.000 metro karratuko orubean egingo dute musika eskola.

Lau solairu erabilgarri izango ditu, Javier de las Heras Solé arkitekto katalanaren diseinuari jarraituz. Beheko solairuak Txiki Otaegi kaletik izango du sarbidea, eta ate-

zaintza, herritarrentzako harrera gunea eta itxarongela izango ditu. Lehenengo solairuan irakasleen gelak, erabilera anitzeko aretoa eta biltegia egongo dira. Bigarrenean haize- eta hari-instrumentuen gelak eta gitarra eta piano gelak egongo dira, musikaterapia lantzeko guneez gainera. Hirugarren solairuan, alboka, akordeoia, txistua, trikitia, perkusioa eta joera berriak ikasteko gelak egingo dituzte.

Langileen baldintzak

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin esleitu zituzten lanak. EH Bildu eta Hiri Ekimena abstenitu egin ziren. EH Bilduko Ander Uriartek euren bozketaren arrazoiak eman zituen. “Lanak esleitzeko lehiaketa estu joan da, enpresek antzeko proposamen ekonomikoak egin dituzte eta Bycam enpresak azkenean proposatu dituen hobekuntza batzuek desorekatu dute balantza euren alde”. Hain lehiaketa estua langileek ordaindu dezaketela uste du Uriartek. “Non egon daiteke aurrezte? Langileen baldintzetan eta soldatetan. Udalbatzar honek zaindu egin behar luke langileen eskubideak eta baldintzak betetzen diren. Gu, behintzat, hor egongo gara baldintzak bete daitezela”, adierazi zuen. Agirrebeitia alkatea ados agertu zen Uriartek esandakoagaz eta zainduko dutela adierazi zuen.

Zornotzan ia bost puntu baxuagoa da langabezia, Bizkaia alderatuz

ZORNOTZA • J.D.

Datozen urte bietarako enplegu plana jarri du martxan udalak eta, horregaz batera, langabeziaren gaineko hainbat datu eman ditu. Zornotzan %8,7ko langabezia dago gaur. Bizkaiko batez bestekoa (%13,2) baino ia bost puntu baxuagoa da. Portzentaiak kantitateetara ekarrita, egun 812 lagun daude lan barik Zornotzan, 2016ko urte amaieran baino 155 gutxiago.

Udalerrian %8,7koa da langabezia eta Bizkaian %13,2koa; Zornotzan 812 langabe daude orain

20 langileen kontratazioa

Enplegu planak 483.679 euroko aurrekontua du eta zenbait neurri jasoko ditu langabezia tasa murrizteko. Lanbideren laguntzagaz 20 lagun zuzenean kontratatzea espero dute. Lanpostu horiek iraupen luzeko langabeei zuzenduta daude. Enplegu horiek espazio publikoen mantentze-lanekin eta gizarte gaiekin zerikusia izango dute, besteak beste. Kontratuek, gehienez, sei hilabeteko iraupena izango dute, planak jasotzen duenez.

Orlan Isoird eta Andoni Agirrebeitia, EAJren hautagaiak Berrizen eta Zornotzan

2019ko udal hauteskundeetarako EAJren zerrendaburuen berri eman dute



Orlan Isoird Berrizko egungo alkatea.



Andoni Agirrebeitia Zornotzako egungo alkatea.

BERRIZ / ZORNOTZA • M.Z.

EAJren Uri Buru Batzarrak jakitera eman duenez, Orlan Isoird eta Andoni Agirrebeitia izango dira, hurrenez hurren, EAJren Berrizko eta Zornotzako alkategaiak 2019ko udal hauteskundeetan.

2011z geroztik Berrizko EAJren zerrendaburua den Orlan Isoird oraindik “asko” duela egiteko adierazi du. “Azken urteotan ibilbidearen zati bat egin dugu, baina oraindik hainbat proiektu geratzen zaizkigu aurrera eramateko, Berriz bere herritarren bizi-kalitatea hobetzen jarraitu dezan. Jardun horretan inbertitzen jarraituko dugu, herritarrek gure proiektua aukeratzeko badute”, aitortu du Isoird.

Bestalde, Zornotzako egungo alkatea den Andoni Agirrebeitia hautagaitza aho batez babestu dutela alderdikideek jakitera eman du, prentsa ohar bidez, herriko Uri Buru Batzarrak. Agirrebeitia bere konpromisoa eta ilusioa erakutsi ditu bere taldeagaz lanean jarraitzeko eta sortzen zaizkien erronkei aurre egiteko.

Plan Orokorren gaineko bigarren batzarra egingo dute zapatu honetan

IZURTZA • J.D.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egiteko prozesuan sartuta dago udala. Lehenengo urratsetako bat herritarrekin egin beharreko batzar parte-hartzaileak dira. Ildo horretako batzar bat egin zuten eta asteburu honetan bigarrena egingo dute. Zapatu goizean izango da, 11:00etan, Izurtzako jubilatuen lokalean. Hainbat azalpen emango dituzte eta herritarrek euren iritzia eta ikuspuntua emateko aukera izango dute hainbat gairen inguruan: herrian hobetzeko zer ikusten duten, mugikortasun arloko hobekuntzarik sumatzen duten... Ondoren, iritzi horiek kontuan hartuko dituzte Hiri Antolamendurako Plan Orokorra diseinatzeko ordutan.



ERAZ

Hareek denporak!

INTSUMISIOAREN ALDARRI OZENA DURANGALDEAN

Haritz Leanizbarrutia epaitegi-tara deitu zuten intsumisioa izateagatik, 1995eko urtarrilaren 19an. Berriz Intsumisio eta Objekzioaren Alde (BIOA) taldea sortu berri zen sasoi hartan. Xabier Amuriza bertsolaria eta Rosa Mari Ostogain Berrizko sasoi hartako alkatea Leanizbarrutia intsumisioaren testigu lez joan ziren Bilboko epaiketara. Herriko hainbat lagunek intsumisioaren despenalizazioa aldarri-

katu zuten Epaitegi Nagusiaren aurrean. Berriztarra espetxean sartu zuten, azkenean. Bestalde, urte horretan bertan, otsailaren 13an, Zigor Murgoitio intsumisio elorriarra ere espetxeratu zuten. Sasoi hartan, Basauriko kartzelan 30 intsumisio zeuden, 3. graduak. Durangon ere beste bi intsumisio atxilotu zituzten. Ez ziren intsumisio izatearren Durangaldea atxilotu zituzten bakarrak izan. J.G.

Sei hankako mahaia

Julian
Rios Santiago
SQ-2D



40 kilometro luze eta arriskutsu

Guraso asko aspalditik dabiltza Durangon 24 orduko pediatria zerbitzua eskatzen. Gaur egun 4 pediatria daude 15:00ak arte, eta larrialdietako bat 17:00ak arte. Ordutik aurrera, Durangoko 4.100 haur baino gehiagok eta eskualdeko 12.000 baino gehiagok beste zentro batzuetara joan behar dute. Denok dakigu zein garrantzitsua den diagnostiko arin bat egitea eta bizkor artatzea, biziak salbatu ahal izateko.

Bitxia bada ere, 17:00etatik aurrera handitu egiten da pediatria zerbitzuaren eskaera, haurrak ordu erdi lehenago irteten direlako eskolatik, eta orduan jakiten dugu arratsalde txarra pasatu dutela, sukarra dutela, jausi egin direla eta abar.

Gertuen dagoen ambulanzia medikalizatua Gernikan dago eta gurasoek 40 kilometro baino gehiagoko joan-etorriak egin behar izaten dituzte, haurrak negarrez daudela, zer duten jakin barik eta estres egoeran gidatzen.

2017an arazo honen berri eman genion Eusko Jaurlaritzari. Haien aldetik, ez genuen ez azalpenik ez irtenbiderik jaso. Sistema ona dugula baino ez ziguten esan. Beraz, 10 hilabete geroago ere arazo bera dugula ikusita, durangar denon izenean Osakidetza eta Osasun Sailari gure beharrezkoen berri emateko eskatu genion Durangoko Udalarari. Baina, ekimen honi babesia eman beharrean, gobernu taldeak (EAJ-PSOE-PP) bere alderdien jardueraren defendatu zuen berriro ere, eskaera Eusko Jaurlaritzari egitea saihestuz.

Itxura batean, gure txikiak osasuna ere ez da lehentasun bat gobernu talde honentzat.

*Erredakzioan itzulia

Durangaldea asteen

Dantzariak bazkalorduan hartzeko izena emateko aukera dago Traña-Matienan

Abadiño | Apirilaren 22an ume dantzarien XVII. jaia egingo dute Traña-Matienan, Iluntze dantza taldeko kideek antolatuta. Ohi bezala, beste herri batzuetatik etorriko diren umeak bazkalorduan etxean hartzeko izen-ematea hasi dute Iluntzeko kideek. Izen-ematea apirilaren 13a baino lehen egin behar da, Traña-Matienako Errota kultur etxean, Petite liburu-dendan edo Hezgarri liburu-dendan.

Jai parekideak lortzeko asmoz, prozesu parte-hartzaileak martxan Abadiñon

Abadiño | Udalak parte-hartze prozesu bi antolatu ditu San Trokaz eta San Prudentzio jaiak parekideak izatea lortzeko bidean. Jaietan estereotipo sexistak ez errepikatzea eta emakumeen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea da helburua. Prozesu bakoitzean hiru batzar egingo dituzte, eta astelehenean izan zen lehenengoa, Txanportan.

Gizonezko bat atxilotu dute Izurtzan hainbat garajetan lapurreta egiteagatik

Izurtza | 40 urteko gizonezko bat atxilotu zuten Izurtzan, astelehen goizaldean, hainbat auto eta garajetan lapurretak egitea egotzita. Ertzaintzak azaldu duenez, urrutiko aginteak osten zituen autoetatik lehenengo, garajeetako ateak zabaltzeko. Eta, ostean, aterik behartu barik sartzen zen garajeetara. Ertzaintzak jakitera eman duenez, 40 urteko gizonezkoari Abadiño, Iurreta, Durango eta Izurtzako trastelekuetan lapurreta egitea leporatzen diote.



Elorrioko Verlar enpresan hiru eguneko greba egin dute, ELA sindikatuak deituta

Elorrio | Eroskik azpikontrataturako Verlar enpresan hiru eguneko greba egin dute asteen, eguaztenetik gaur arte. ELA sindikatuak deitu du protestara, eta beharginen elkarretaratzeak ere egin dituzte kalean. Langileen lan baldintzen eta sektoreko hitzarmenaren alde greban daudela jakitera eman du sindikatuak. Izan ere, orain bost urtetik Bizkaiko bulego eta langetako beharginak lan hitzarmenik barik daudela salatu du.

Bestalde, langileen gehiengoaren soldatak 1.000 eurora ere ez dira heldzen eta "lan baldintza duinak izan arte borrokan" jarraituko dutela jakitera eman dute ELA sindikatukoek prentsa ohar bidez.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DAUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

A. Urreta
podologa
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO
PLANTILLAK
OINETAKO BESTE
HAINBAT GAITZ
R.P.S. 21406
Podinara
Urreta
Jainaga
MAPFRE IMQ
Herriko gudarien kalea, 10
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Ti Viens!

KLOWN IKUSKIZUNA
DURANGO :: Martxoak 31

Toi d'abord bikoteak 500 bider baino gehiago antzestu du ikuskizun hau

Toi d'abord osatzen duen bikoteak Lyoneko zirku eskolako sasoian sortu zuen lan hau. 2009ko ekainean estreinatu zuten oholtza gainean, eta ordutik 500 bider baino gehiagotan antzestu dute obra hau. Ber-

tan, bi gizon antagoniko dira protagonistak, eta maitasuna zein handia den erakusten dute, barbarik esan barik. Bata arretatsua da; bestea, ostera, grinatsua; lotsatia bata, zoroa bestea. Banatuz gero hil egingo



'Uda topera!' ekimenean izena emateko epea ireki dute, apirilaren 17ra arte

DUATLOIA | Durangoko Udalak *Uda Topera!* programaren edizio berri bat antolatu du. Aurten honetan, ekainaren 25etik uztailearen 20ra arte izango da

ekitaldia. Lau adin tartekoentzat prestatu dituzte ekintzak: Txiki Txoko (3-5 urte), Hiri Kanpamentua (6-10 urte), Abentura (11-14 urte) eta Ingeleseztan (7-14

urte). Astelehenetik barikura izango dira ekimenak. Egitasmo honen tarifak astea ordainduko dira. Durangon erroldaturikoek 50 euro ordainduko dute lehenbiziko asteagatik; ondoren, 90 euro, 120 euro edota 150 euro ordainduko dituzte, aste kopuruaren arabera. Gainontzekoek 60, 115, 150 edo 190 euro ordainduko dituzte. Apirilaren 17ra arte apuntatu daiteke.

Martxoaren 23an

ELORRIO bisita gidatua 'Memoria Historikoaren Astea' bisita gidatuak, 17:30-19:00, plazan.

DURANGO musika **Revolta Permanent, La Basu eta Gatomen kontzertua**, 21:30etan, Plateruenean.

ELORRIO antzerkia 'Pareja abiarta' antzezlan, 22:00etan, Arriolan.

ELORRIO musika **Bi Bala eta Koban taldeen kontzertua**, 22:30etan, gaztetxean.

BERRIZ musika **Arrotza eta Gloria taldeen kontzertua**, 22:30etan, gaztetxean.

ZORNOTZA musika **Gauero, Klown eta Thrastorno taldeen kontzertua**, 23:00etan, Zelaieta zentroko kontzertu gelan.

Martxoaren 24an

ELORRIO bisita gidatua **Intxortako frontera bisita, 'Memoria Historikoaren Astea'-ren baitan**, 10:00etan, aparkalekuan.

DURANGO ipuin kontaketa **"The king's Servant" ipuinaren kontaketa, ingelesez (Kids & Us-en eskutik, 3-7 bitarteko umeentzat)**, 12:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

Martxoaren 24an eta 25ean

DURANGO lehiaketa **'Zapping' film laburren lehiaketaren V. edizioa**, itxiera jaialdia, 19:00etan, Plateruenean.

Martxoaren 25ean

ELORRIO topaketa **BTT eskolen topaketa**, San Jose zelaian.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zapping film laburren lehiaketa antolatu du Zapaburuk berriro



ZINEMA | Bihar, zapatua, 12:00etan hasita, 24 ordu edukiko dituzte parte-hartzaileek filmak sortzeko. Plateruenean emango diote hasiera film laburren lehiaketari, eta kafe antzokian bertan egingo dute aurkezturiko lanen emanaldia

ere. Bihar, anfiteatroan batuko dira parte-hartzaileak, eta grabazioan jorratu beharko duten gaia eta baldintzak zeintzuk izango diren esango diete antolatzaileek. Hurrengo eguneko 13:00ak arte edukiko dute epea 8 minutuko filma entregatzeko.

liratekeela uste dute, baina batak besteari ez diote esaten elkar zenbat maite duten. Malabarismoa da bien arteko pasioa. Pilotek, keinuek eta sentimenduek deskribatuko dute harreman indartsu bezain hauskor hau.

DURANGO musika
Aste Santuko kontzertua
Tabira Musika bandagaz,
19:00etan, Andra Mariko
elizan.

Martxoaren 26an

ABADIÑO deialdia
Zelaietako
berrantolaketari buruzko
proposamenak egiteko
deialdia, EH Bilduren
eskutik, 18:00etan,
Txanporta kultur etxean.

Martxoaren 26ra arte

ABADIÑO tailerra
Mahai-jolas tailerra
Katalamixon aisialdi
elkartearen eskutik (LH
3-6 eta DBH 1-2 bitarteko
ikasleentzat), 11:00-13:00
bitartean, Trañabarreneko 1
eta 3 arteko lokalean.

Martxoaren 27, 29 eta 30ean

DURANGO antzerkia
'Durangoko Pasinoa'
antzezlana, 21:00etan,
Santa Anan.

Martxoaren 28an

DURANGO antzerkia
'Ramper, vida y muerte
de un payaso' klown
ikuskizuna Cancamisa
Teatroren eskutik,
22:00etan, San Agustin
kulturgunean.

Martxoaren 29an

DURANGO antzerkia
'Babo Royal' klown
ikuskizuna Ganso&Ciaren
eskutik, 18:00etan, Aurora
Abasolo parkean.

DURANGO antzerkia
'Noches de Bingo'
klown ikuskizuna Los
Gandulesen eskutik,
18:00etan, Andra Mariko
elizpean.

DURANGO antzerkia
'Boris & Ingrid' klown
ikuskizuna 2theatrearen
eskutik, 22:00etan, San
Agustin kulturgunean.

Martxoaren 30ean

DURANGO antzerkia
'¿Dónde está Mercé?'
klown ikuskizuna
Bandadaren eskutik,
20:00etan, San Agustin
kulturgunean.

DURANGO antzerkia
'Stand Up and Fall
Down' klown ikuskizuna
Peter Shuben eskutik,
22:00etan, San Agustin
kulturgunean.

Martxoaren 31n

DURANGO antzerkia
'VI Topaklown kabareta'
klown ikuskizuna,
22:00etan, San Agustin
kulturgunean.

Apirilaren 1ean

DURANGO antzerkia
Topaklown ikastaroen
erakustaldia, 22:00etan,
San Agustin kulturgunean.

Apirilaren 3tik 8ra

ELORRIO kirola
'Kirol astea' 6-12 urte
bitarteko gazteentzat,
10:00-13:00/16:00-18:00,
plazan.

Martxoko agenda



23 IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA
Club de lecture
18:30-20:00 Gigi/Colette
19:00 Helduentzako ipuin kontalaria (euskaraz).
ITZIAR REKALDE "La dona inmovile"

26 27 28 KULTUR SAILA
09:00-13:30 Aste Santuko tailerrak
"Mahai-jolasak, xakea eta eskulank"

26 28 GIZARTE-ONGIZATEA
Gu be bai Runners-Iurreta
19:30 Plaza
Ibilbidea+luzapenak I
zen ematea zabalik

Apirilaren 10etik ekainaren 19ra

BERRIZ ikastaroa
14 urtetik gorako
emakumeentzako
argazki ikastaroa (izena
emateko azken eguna,
apirilaren 6a), 18:00-
19:30 (martitzenero), Kultur
Etxean.

Martxoaren 25era arte

DURANGO erakusketa
Kurutzia ga elkarteko
kideen obren erakusketa,
Ezkurdiko udal aretoan.

Apirilaren 15era arte

DURANGO erakusketa
Josu Rekalderen
'Erresilientziak'
erakusketa, Arte eta
Historia museoan.

DURANGO erakusketa
Durangaldeko emakume
artisten 'Hausnarketak'
erakusketa, Arte eta
Historia museoan.

Apirilaren 6tik 15era arte

DURANGO erakusketa
Enrike Larramendiren
obren erakusketa,
Ezkurdiko udal aretoan.

Martxo eta apirila bitartean

BERRIZ erakusketa
Ane Pikaza
ilustratzailearen
'Landareak, lumak eta
beste inbasio batzuk',
Kultur Etxean.

Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

Harpetarra
barikua, 23: 18:15
domeka, 25: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **El aviso**
barikua, 23: 19:30/22:00
zapatua, 24: 17:00/19:30/22:30
domeka, 25: 19:00/21:00
astelehena, 26: 18:30/21:00
martitzena, 27: 20:00
eguaztena, 28: 20:00

• **Pacific Rim: Insurrección**
barikua, 23: 19:30/22:00
zapatua, 24: 17:00/19:30/22:30
domeka, 25: 17:30/20:00
astelehena, 26: 18:30/21:00
martitzena, 27: 20:00
eguaztena, 28: 20:00

• **Peter Rabbit**
barikua, 23: 19:30/22:00
zapatua, 24: 17:00/19:30/22:30
domeka, 25: 16:30/19:00/21:00
astelehena, 26: 18:30/21:00
martitzena, 27: 20:00
eguaztena, 28: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Lady Bird**
zapatua, 24: 22:00
domeka, 25: 20:00
astelehena, 19: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Sin Rodeos**
barikua, 23: 20:15
zapatua, 24: 19:30/22:00
domeka, 25: 20:00
astelehena, 26: 20:15

“Berdin dit taldean edo bakarka, nik zuzenean jotzen disfrutatzen dut”

‘Aingurak’ diskoa kaleratu du Inun artista zornotzarrak ‘Da Nola’ atera eta gutxira; Loraldiaren baitan aurkeztu du



Mikel Inunziaga Azkueta
Musikaria

Zornotza | 1983

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Bakarkako ibilbideari ekin zion Inunek 2014an, ‘Berreginez’ diskoagaz, eta aste honetan pop estiloko ‘Aingurak’ aurkeztu du.

Zer berritasun dakar ‘Aingurak’-ek?

Orain arte egindakoagaz ikasi eta horren esperientziagaz diskorik borobilen egin dut, nik uste.

Bandagaz grabatu duzu berriz.

Aurrekoan instrumentazio piloa zegoen, baina neuk grabatu nuen ia guztia. Gustatzen zait grabazio prozesua, eta, ahal den heinean, neuk grabatzea. Orain parte-hartze handiagoa egon da musikarien aldetik.

Esku hartzen utzi diezu, beraz.

Kantuaren oinarriak neuk egin ditut, neuk eraman ditut estudioa, eta, gero, gainontzekoek beraien zatiak gehitu dituzte.

Zuzenekoetarako, nola egingo duzu?

Orain artean lez, formatu ezberdinetan eskainiko ditut kontzertuak; egokitu egingo naiz. Nik ez dut nahiago bakarrik jotzea, edo bandagaz jotzea. Nik zuzenean jotzen disfrutatzen dut; gainera, formatu bakoitzak bere kolorea ematen diola uste dut. Bakarrik nagoenean kantak biluziago daude, baina magikoagoa da. Taldean aberatsagoa da musikalki, eta kantek hainbat matiz irabazten dituzte.

Abestietako hitzetako batzuk zeurek dira, baina beste batzuen testuak ere musikatu dituzu.

Bai, beste hiru pertsonak hartu dute parte hitzen prozesuan: Iñigo Astizek, Iñaki Mendizabalek eta

“**Ohikoa da, grabaketek hitz egiterakoan, hitz politekin janztea; niri gustatzen zait, baina egia da gogorra dela**”

“**Grabaketa entzuten dudanean, kantaren arima islatuta egon behar da; horregaz bai banaiz naiz tematia**”

Jon Benitok. Disko honetan bi modu izan ditut hitzak musikatzeko. Jon Benitoren kasuan, *Aingurak Erreketan* poema hartu, neure egin eta musikatu egin dut. Iñigo Astizegagaz eta Iñaki Mendizabalegagaz elkarlan bat egon da. Nik melodiak aurretik eginak nituen eta eurek horren araber moldatu dituzte testuak.

Zelan joan zen grabaketa?

Nire baserrian grabatzen dut. Bertan ekipo profesionala daukagu; oso grabaketa lasaiak izaten dira zentzu horretan, ez dugulako denboraren presiorik. Nahasketak eta masterizazioa egiteaz Ruben G. Mateos arduratu da, berak borobildu du soinua. Ohikoa da, grabaketek hitz egiterakoan, hitz politekin janztea. Niri asko gustatzen zait grabatzea, baina egia da, baita ere, gogorra dela. Abestiek behar be-

zala funtzionatzen duten begiratu behar da, gauza berriak probatu, esperimentatu, eta horrek bere buruhausteak sortzen ditu.

Zorrotza zara estudioan grabatzen duzunean?

Bietatik dut. Soinu aldetik ez naiz oso zorrotza, baina buruan daukadan islatu egin behar du kantak. Grabaketa entzuten dudanean, kantaren arima islatuta egon behar da, eta hor bai banaiz tematia. Batzuetan, imajinatu dezaket zer

gehitu, adibidez orkestrazio bat, baina beti ez da posible izaten; modu sinplean ere ondo geratzen da beste askotan.

Disko hau, aurrekoak bezala, autoekoiztua da.

Ni ez naiz ibiltzen atez ate. Proiektu bat aurrera eraman gura badut, lehenik eta behin nire kabuz ateratzeko baliabide nahikoa dudala begiratzen dut. Eta, orain arte, eduki ditut. Nahiko *Do It Yourself* [Zuk zeuk egin] filosofiakoa naiz. Neuk egin ahal badut, hobe neuk egitea beste batek egitea baino.

Diskoaren aurkezpena Bilboko Kafe Antzokian egingo duzu [atzo izan zen]. Zergatik han?

Niretzat oso espazio berezia da. Aspalditik joaten naiz kontzertuak

“

Nahiko Do It Yourself filosofiakoa naiz. Neuk egin ahal badut, hobe neuk egitea beste batek egitea baino”


“

Kafe Antzokia sinbolo bat da Bilbon, euskal kulturaren ikonoa, eta ez musika aldetik bakarrik”

ikustera, eta orain Bilbon bizi naitzela, gehiago. Sinbolo bat da Bilbon, euskal kulturaren ikonoa, eta ez musika aldetik bakarrik. Aurkezpen kontzertua han egitea oso sinbolikoa da, nire burua bertako filosofiaren baitan ikusten dut eta.

Eta hemendik aurrera?

Da Nola 2016ko urrian kaleratu nuen, eta urte eta erdi baino ez da igaro ordutik. Horregaz kontzertu asko eman nituen, eta honegagaz, egia esan, ez naiz gehiegi arduratu oraindik. Batzuk hitzartuta ditut eta ziur gehiago irtengo direla; oso pozik nago eta ezin naiz kexatu.



Berreginez izan zen Inunek kaleratu zuen lehenbiziko diskoa. Bere kasa grabatu zuen, looperra eta bateria elektrikoa erabilita. 2016an, *Da nola* kaleratu zuen. Lan honetarako, zenbait euskal idazleren poemak musikatu zituen; Jon Miranderen, Itxaro Bordaren eta Miren Agur Meaberen testuak egokitu zituen. *Aingurak*

Pop ukituen, erritmo sakonen eta melodien uztarketa

honetan pop ukituak nagusitzen dira. Erritmo sakonak eta pisutsuak melodia samurrekin uztartzen dira lan berrian. “Disko bat egin aurretik ez dut esaten ‘hau egingo dut’; kantuak irteten zaizkidan bezala egiten ditut”, adierazi du. Hirugarren diskoa izatera, abestiak ere landuagoak direla nabari da, eta Inunek berak ere horrela aitortzen du. Eguneroko beharrari esker artista moduan ere hazten ari dela dio. “Diskoa osatzen duten zortzi abestiek momentu honetan naizena irudi-

katzen dute”, azaldu du musikari zornotzarrak.

Berbei dagokienez, barrura begirako diskoa dela dio Inunek, eta hausnarketara gonbidatzen duela. “Gaurko egoera sozialari eta norbanakoari buruzko galderak eta kritikak planteatzen dira bertan”, adierazi du. *Aingurak* kontzeptua bera Jon Benitoren *Aingurak Erreketan* poematik hartutako ideia bat da. “Olerki izugarri ederra da, eta diskoaren arima oso ondo irudikatzen du aingurak”, gehitu du.



IURRETA

**Tellitu-n
hurrengo
eraikuntza**

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

**Etorri
ikustera!**

DURANGO
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren
2 etxebizitzak!**

*Durango herrigunean
Energia eraginkortasun
handiko etxebizitzak*

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Durangaldeko 12 bertsolarik hasiko dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Apirilaren 14an abiatuko da udabarriko fasea; guztira, 78 bertsolarik eman dute izena



Aitor Bizkarra abadiñarra, 2016ko txapelketan abesten.

BERTSOLARITZA • A.M.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2016an eduki zuen egitura berberari eutsiko dio 2018an. Apirilean hasiko den udabarriko fasean 78 bertsolarik eman dute izena, tartean, Durangaldeko hamabi bertsolarik. Hamahiru saiok osatzen

dute fase hau, seina bertsolarikoa bakoitza, eta maiatzaren 26ra arte iraungo du. Fase honetatik puntuazioz sailkatuko dira udagoieneko fasea; 2014ko finalistak zuzenean sailkaturo dira udagoieneko faseko kanporaketetara; 2016ko finalistak finalaurrekoetara

Apirilaren 14an hasi eta maiatzaren 26ra arte iraungo du udabarriko faseak

sailkatuko dira zuzenean.

Guztira, 78 bertsolarik eman dute izena, herrialde denetakoek. Hauek izango dira Durangaldea ordezkatzuko duten bertsolariak: Peru Astigarraga (Iurreta), Iker Apraiz (Atxondo), Txaber Altube (Abadiño), Beñat Molina (Durango), Aitor Bizkarra (Abadiño), Igor Galarza (Abadiño), Jon Ander Urkiaga (Zornotza), Gorka Pagonabarraga (Durango), Beñat Romero (Zornotza), Eneko Abasolo 'Abarkas' (Iurreta), Garikoitz Sarriugarte (Zaldibar) eta Eneko Barruetabeña (Durango).

Hamahiru saioretako hiru Durangaldean jokatuko dira. Horiematik lehenbizikoa Otxandion izango da, apirilaren 21ean; maiatzaren 12an, Elorrioko Arriolan izango da beste bat, eta maiatzaren 26an, Abadiñoko Errotan, lehenbiziko faseko azken kanporaketa.

Ordezkaritza zabala

Alor teknikoari dagokionez, Durangaldeko beste hainbat lagunek ere parte hartuko dute, gai-jar-tzaile edo epaile moduan. Besteak beste, Jon Jaio iurretarrak, Ainhoa Urien, Itsaso Gangoitia, Alaitz Etxanobe, Jone Narbaiza eta Itxaro Juaristi abadiñarrek, Amaia Ugaldelorrirrak, Maite Berriozabal berriztarrek eta Maider Arizmendiarrieta eta Miriam Juaristi zaldibartarrek.

Geure Durangaldea

Jon Irazabal Agirre Gerediagako kidea



Gudak puskatutako ikastola

Urriaren 2an, 50 urte beteko dira Iurretako Goiuria ikastolak atek zabaldu zituela. Urte batzuk gorabehera zabaldu ziren gure inguruan Durangoko Kurutzia, Matienakoa eta beste hainbat, baina ez ziren inguruko lehen ikastolak izan. 1935eko urriaren 27an, EAJk Durangoko lehen ikastola inauguratu zuen Astarloa Etxeko bigarren solairuan. Biharamunean, 60 neska-mutikok hasi zituzten ikasketak, Genoveva Leibar eta Felisa Aretxaga irakasleen gidaritzapean. Kristau heziketa emateaz gain, honakoa hartzen zen kontuan: "Hezkuntza euskalduna izan dadin, ez da aski hizkuntza, geografia... euskaraz erakustea. Aitzitik, ikastetxeko jardura guztiek eta bakoitzak bitarteko izan behar dute, irakaskuntza oso-osorik euskalduna lortzeko."

Irakaskuntzako ohiko ekin-tzetatik kanpo hainbat ekitaldi antolatzen zituen oso bizitza laburra izan zuen ikastola honek. Azken ekintza Arabako Estibalitz santutegira egindako ibilaldia izan zen, uztailak 14, guda hasi baino 4 egun lehenago.

Gerratik urrutzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak hainbat tokitara erbesteratu zituen umeak. Ume batzuk, 419, Donibane Garazin prestatutako kolonia batean bildu zituzten, 25 andereñoren ardurapean. Genoveva Leibar eta Felisa Aretxaga izan genituen haietako bi. Gerra ostean, irakasle moduan lan egitea debekatu zieten bie. Leibar Berrizko Madres Mercedarias Misioneras komentuan sartu zen eta 1942an orden hartako abituak hartu zituen. 1944an hil zen, 32 urte zituela. Aretxagak irakaskuntza alde batera utzita, sortzain ikasketak egin zituen, eta urte askoan Durangon jaio-tza askoren lekuko izan genuen.

Durango Klownaren katedrala bihurtuko da, seigarren biderrez

160 lagunek eman dute izena bederatzi ikastaroetarako; bederatzi ikuskizunek osatzen dute aurtengo programa

ANTZERKIA • A.M.

Seigarren edizioagaz, Durangon errotu den ekimena da Topaklown. Martxoaren 28tik apirilaren 1era bitartean izango da aurtengo edizioa. Bederatzi ikuskizunetako zazpi San Agustin kulturgunean izango dira, eta gainontzeko biak kalean. Horietakoa bat Ganso&Ciarren azken lana izango da, *Babo Royal*. Durangon izango da aures-

treinaldia. Peter Shuben *Stand Up and Fall Down* ere nabarmendu dute; ibilbide oparoa du Shub estatubatuarrek aktore moduan.

Emanaldiez gainera, klowngingtzen prestatzeko aukera zabala eta kalitatezkoa eskaintzen dute Topaklownen. Bederatzi ikastaro egingo dituzte, eta guztietarako daude beteta plazak. Peter Shuben kasuan, irakasle ere arituko da.



'Babo Royal' antzezlanaren Durangon estreinatuko da.

TOPAKLOWN
Durangoko Klown Topaketa

Martxoaren 28tik apirilaren 1era
www.topaklown.com

San Agustin KULTUR GUNEA
Durangoko Udala

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatelexea@plateruena.net

REVOLTA PERMANENT + GATOM
Martxoak 23 · 21:30ean

LA BASU
Apirilak 8 · 13:00etan

OLATZ SALVADOR
Kontzertua

DOCTOR DESEO
Apirilak 14 · 22:00etan
Kontzertua

“Gola sartu nuenean ezin nuen sinetsi; une pozgarria eta hunkigarria izan zen niretzat”

Lesio luze baten ostean, ametsetako itzulera bizi izan zuen Beñat Cortazarrek joan zen asteburuan, gol eta guzti



Liga amaitzeko geratzen diren partidu eta entrenamenduetan erritmoa hartzen jarraitzea du helburu.

FUTBOLARI • JOSEBA DERTEANO

Lesioak kirolarien amesgaiztoak dira. Beñat Cortazarri (Durango, 1994) hiru urte iraun dio ametsetar horrek. Mokokorrek lesio bat gaintu ezin ibili da. Ebakuntza baten eta errekupeazio luzearen ostean, zelaietara itzuli zen joan zen asteburuan eta gol batez osatu zuen.

Durango Kulturalaren bigarren taldeko jokalarientzat une berezia izan zen. “Zer gehiago eskatu dezaket? Gola sartu nuenean ezin nuen sinetsi. Une pozgarria eta hunkigarria izan zen niretzat”, adierazi du. Aurrera jarraitzeko indarra eman diola onartu du. “Oso motibatuta nago. Orain lanean ja-

rraitu behar dut. Liga amaitu arte geratzen diren partiduetan erritmoa hartuz, apurka gora egitea dut helburu, hurrengo denboraldian topera ibiltzeko”, esan du.

“Ezin nuen horrela jarraitu. Futbola utzi eta zer nuen ondo begiratzea erabaki nuen”

Hiru urteko kalbarioa

Durango Kulturalan hazi eta hezi den jokalaria orain hiru urte hasi zuen gurutzebidea. Lehenengotan, iztaiko arazoa zela pentsatu zuen. Kulturaletik Elorriora joan

zen eta urtebete inguru eman zuen han. “Jokatzen hastean, gelditu egin behar nuen. Ondoren, itzuli eta berriro geratu behar. Ezin nuen horrela jarraitu. Futbola utzi eta zer nuen ondo begiratzea erabaki nuen”, adierazi du. Une gogorra izan zen berarentzat. “Bizitzako bolada txar batean nengoan eta futbola hori dena kanporatzeko erabiltzen nuen. Futbola dena zen niretzat. Zelaian nengoenean, burutazio txar guztiak joaten zitzaizkidan. Beraz, erabat uztea gogorra egin zitzaidan”, onartu du.

Lesioa ez zegoen iztaian, mokreren baizik. Medikuek esan zioten beharbada ezingo zuela berriro jokatu. Ebakuntza egin zioten eta

ikusituz lesioa ez zela hasieran uste zutena bezain larria. Itzultzeko aukerak zituen eta urtebeteko errehabilitazio luzean murgildu zen. Urtarrilean Kulturalak B taldera batzeko aukera eskaini zion eta joan zen asteburuan itzuli zen.

“Kluba eta Txotxe entrenatzailea eskertu gura ditut, eskaini didaten aukeragatik. Baita jokalariek ere, eman didaten tratua onagatik, eta Asier Basabe masajista, asko lagundu didalako”, adierazi du.

Kulturalako bigarren taldeak 19 garaipen daramatza jarraian eta lider dago. Ez da kasualitatea, Cortazarren iritziz. “Kalitate handiko jokalariek daude eta talde moduan funtzionatzen dute”, azaldu du.

Kirolen film laburren lehiaketa abiatu du, natura eta kirola uztartuz

LEHIAKETA • J.D.

Kirolen film laburren lehiaketa abiatu du. Maiatzaren 1era arte aurkeztu ahalko dira bideoak, eta hamar egun geroago egingo den ekitaldi batean proiektatuko dituzte saritutakoak. Kirolene Film Fest izena ipini diote. Partaide guztiei Ordino-Arcalisen eskiatzeko *forfait* bat emango diete, eta proiektzioarako sarrera erosten dutenei ere bai. Film laburrak 7 minutukoak izan beharko dira gehienez, eta euegaz batera *teaser* bat ere entregatuko dute lehiakideek. Oinarri denak www.kirolene.hezkuntza.net webgunean daude.

Ainhoa Urienek Master Cup txapelketako finala jokatu du

PILOTA • J.D.

Ainhoa Urien abadiñarrak Emakumeen Master Cup txapelketako finala jokatu du domekan, 11:30ean, Astelena pilotalekuan. Amaia Vicario eta biak Promozio mailako txapelaren bila arituko dira Alaitz Badiolaren eta Oihana Orbegozoren kontra. Amaia Araiztegi mallabitarrak, aldiz, ezin izan du Lehenengo mailako finalera sailkatu. Maddi Mendizabalek eta biek 6-18 galdu zuten finalerdian eta kanpoan geratu dira.

Asteko kirolaria



JOEL GONZALEZ GATO

Durango, Muay Thai

Boxeoko hainbat modalitate praktikatzen dituen Joel Gonzalez gazte durangarra Muay Thai-ko —Thailan-

“Gorputzarentzat jipoi handia izan zen hiru borrokalditan aritu behar izatea”

Muay Thai modalitateko Euskadiko eta Espainiako txapelduna da Gonzalez durangarra

dian jokatzen den boxeoko mota— Espainiako Txapeldun berria da.

Espainiako Txapelketan urrezko domina irabazi berri duzu. Nola joan zen txapelketa?

Barikuan, 21:00etan, heldu ginen Bartzelonara, eta guretzat orduan hasi zen txapelketa, pisaketa edukit gure lehengo borrokaldia. Ostean, zapatuan, berri ere pisatu gintuzten, eta egun

guztitan zehar hiru borrokaldi gaintu behar izan nituen urrezko domina eskuratu arte.

Ez zen erraza izango egun bakarrean hiru aurkariren kontra aritzea. Egia esan, gogorra izan zen. Gorputzarentzat jipoi handia izan zen hiru borrokalditan aritu behar izatea.

Txapelketaren hasieran garaipena eskuratzeko espero zenuen?

Egia esan, pisaketa izan genuen

nean eta bertan zeuden borrokalaria ikusi nituenean, harritu egin nintzen. Hala ere, adoretzu nengoan une oro, eta konfiantza nuen nire buruarengan.

Otsailean Euskadiko txapeldun gaitu zinen; orain, berriz, Espainiako txapeldun. Prestaketa bereziren bat egin duzu?

Normalean, jendeak atsedean hartzen du txapelketa batetik bestera, baina nik ez dut horretarako den-

borarik izan. Asteazken bost bat bider entrenatzen egon naiz, Durango eta Elorrioren. Horrez gain, korrika egitera ere irten naiz eta jatekoa ere asko zaindu dut. Guretzat elikadura zaintzea ezinbestekoa da, horrek ematen digu-eta energia.

Zer ematen dizu Muay Thai-ko?

Gauza asko ematen dizkit eta horrek izugarri betetzen nau. Horrez gain, konfiantza ikaragarria eman dit, eta baita lagun oso onak ere.

Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak?

Hurrengo erronka nagusia apiril inguruan daukat, Kick Light modalitateko Espainiako Txapelketa. Hala ere, aurretik beste txapelketa batzuk ere badituzte.

DRTren jaitsiera ez litzateke “drama bat” izango, zuzendaritzaren esanetan

“Atzetik jenderik ez etortzea litzateke drama”, dio Juan Manuel Iriondo presidentek



Durango Nissan Gaurisa gizonen talde nagusiaren aurtengo familia argazkia.

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Arrakastak eta porrotak helburuen arabera sailkatzen dira. Orain 26 urte sortu zutenetik, Durango Rugby Taldeak errugbia sustatzea eta etxeko jendeari errugbian aritzeko aukera eskaintzea ditu helburu nagusi, garaipenen aurretik.

Ildo horretatik, errugbi eskola gaztez beteta dute eta 18 urtez azpiko taldeak klubeko jokalariekin bakarrik osatzeko moduan daude. Beraz, 15 urteren ostean talde nagusia Ohorezko B Mailatik jaisteko zorian egotea “ez da drama bat”, Juan Manuel Iriondo DRTko presidenteari

ren ustez. “Atzetik jenderik ez etortzea litzateke guretzat drama, eta alde horretatik nahiko ondo gaude. Beheko mailatan lan ona egiten gabilta eta badator jendea. Guk etxeko jendeagaz jokatzeko dugu, hori da lehentasuna. Jaisten bagara, datorren urtean berriro igotzen

saiatuko gara eta kito, ez dago besterik. Ezin gara triste egon, inondik inora”, adierazi du Iriondok.

Joan zen asteburuan, hil ala biziko partiduan, 52-24 galdu zuten Vigo aurkari zuzenaren kontra. Galiziarrek bost puntura egin dute alde sailkapenean.

Berez, Ohorezko B Mailatik talde batek jaitsi behar luke eta DRT azken aurreko dago. Zoritxarrez, miraririk ezean, Getxo jaitsi egingo da Ohorezko Mailatik eta, jaitsiera horren ondorioz, Ohorezko B Mailako azken aurrekoak ere maila galduko luke. DRTren mailan lider dagoen Burgosetik igotzea lortuko balu, egoera berriro orekatuko litzateke, baina hipotesi konplikatu da.

Borrokan, azken unera arte

Edozelan ere, azken unera arte borrokatzeko prest dago Durango Nissan Gaurisa taldea. Asteburuan ligako azken partidua jokatu dute Arripausetan, Zarautzen kontra, eta ahalik eta punturik gehien bazuten saiatuko dira, helburu bigaz: Vigo aurreratzea eta Oviedo azken sailkatuak eurak ez harrapatzea. Azkenean, azken aurreko postuan geratzen badira, Getxok eta Burgosetik hurrengo asteetan zer egiten duten zain geratu beharko dute, mailaz jaisten diren ala promozioa jokatzeko duten jakiteko.

Adituaren txokoa

Juan Carlos Perez Villumbrales
Areto-futbola



Kurtso bukaera

Denboraldia azken txanpan sartzen ari da eta gure areto-futbol taldeak azken hile eta erdiari aurre egiten dabilta, zein bere helburuekin. Mailarik maila aztertuz gero, denetarik aurkitu dezakegu.

Talde askok ez dute ezer jokoan eta hurrengo denboraldirako plangintza egiten ari dira. Hori ere egin beharreko lana da, dena behar den moduan prestatzeko bidean. Beste talde batzuek, ordea, asko dute jokoan eta duten dena eman beharko dute helburuak lortzeko.

Elorrio Parra Tabernak, hasiera eskas baten ostean, gora egin du eta mailari eusteko aukerakin dago, baina azkenean arte borroka egin beharko dute Durangaldeak Bigarren B Mailan talde bat izaten jarraitu dezan. Hirugarren Mailako eta Euskal Ligako eskualdeko ordezkariak (Sasikoa eta Mallabia), berriz, ez dute ezer jokoan azken txanpari begira.

Erregional maileri dagokienez, Abadiño Txopoak, hondamendirik ezean, Maila Gorenera igotzea lortuko du, Elorrio B taldeak jokatzeko duen mailara, hain zuzen ere. Denboraldi bikaina egiten ari da Abadiño taldea.

Interesgarria da benetan Mallabiko gazte mailako taldearen denboraldia: Lehenengo Mailako lider daude bost jardunaldiren faltan. Maila bat beherago Mendibeltzeko gazteak ere igotzea postuan daude.

Sasikoako neskek ez dute ezer jokoan; ezta klub bereko kadeteen taldeak ere.

Aste Santuaren ataria indarberritzeko sasoia da. Espero dut hemendik hilabete bira, ligak euren amaierara heltzen direnean, gure taldeek kurtsoa aprobata izana.

Mugarrak antolatuta, Durangoko 11. Duatloia lehiatuko dute domekan

Gaztetxoei begirako ibilbide bat ere prestatuko dute eguerdian, duatloirako zaletasuna sustatzeko

DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Mugarra Triatloi Taldeak, Euskadiko federazioaren laguntzagaz, Durangoko 11. Duatloia antolatuko du domekan. Sprint modalitatean, euskal zirkuituaren barruko bosgarren proba izango da.

Ezkurdin hasi eta amaituko da duatloia. Gizonena 10:45ean hasiko da eta emakumeena, 11:00etan. Korrika egin beharreko ibilbidea

herrigunean zehar izango da. Bizikletako 18,5 kilometroetan Goiuritik eta Garaitik ibiliko dira. Garain buelta hartu eta Durangora itzuliko dira.

Gaztetxoei begirako duatloi bat ere antolatu dute, 13:00etan, Ezkurdi inguruan. Izen-ematea aurretik —www.mugarratt.com webgunean — edo probako egunean bertan egin daiteke.



Durangoko duatloia euskal zirkuituko bosgarren proba puntuagarria izango da.

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT
PELEGRINAK
J.E. Urrutia Capelu
2018

UME ETA GAZTEENTZAT
ANIMALIEN ERREGEA
Miguel Tanco
2015

MUSIKA
TENPLUAK ERRE
Liber
2018

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Amankomunazgoaren aholkularitzagaz, iaz 60 enpresa sortu zituzten

2017an, Durangaldeko Amankomunazgoak 131 ekintzaileri eskaini zien aholkularitza zerbitzua, negozioak martxan jartzeko

DURANGO • JONE GUENETXEA

Norberak bere enpresa martxan jartzeko, ofizioa ezagutzea baino askoz gehiago jakin behar izaten da. Enpresa munduan lehenengo pausoak eman gura dituzten ekintzaile horiei begira, Durangaldeko Amankomunazgoak aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen ditu. Plangintzan

Sortu diren enpresarik gehienek pertsonen zuzendutako zerbitzuetan dihardute (38)

2017an, Durangon zabaldu zituzten negozio berri gehien: 35 enpresa

eta jarraitu beharreko burokrasia-lanean trebatutako teknikariek ilusioz beteta negozio berriari ekin gura dioten pertsonen bidea erraztea da helburua. Epe horretan, hasierako pausoak zeintzuk diren zehaztu eta tramiteak arintzen saiatzen dira. Prozesu zail horretan sortzen diren zalantza guztiak argitzeko prest izaten da Behargintzako teknikaria. 2017an eskualdeko 131 ekintzaile joan ziren Amankomunaz-

goaren zerbitzura negozio berria sortzeko aholku eske.

Iaz zerbitzuan parte hartu zuten ekintzaileen profilari dagokionez, gehienak Lanbide Heziketa tituludunak, diplomatuak edo lizentziatuak dira (%76). Aholkularitza jasotako momentuan, %40 lanean zebilen, eta gainerako %60a, ostera, langabezian. Gainera, ekintzaileen %56 emakumeak izan ziren, eta %44, gizonak.

Jarduera mota

Sortu diren enpresen jarduera motari dagokionez, gehienek pertsonen eskaintako zerbitzuetan dihardute; 38 enpresak, hain zuzen. Merkataritzan 24 negoziok dihardute, eta enpresei eskainiko zerbitzuetan, berriz, 15ek. Merkataritzan, ostalaritzan, turismoan, eraikuntzan, industrian zein artean ere hainbat enpresa sortu dituzte.


Herrika sailkatuta, negozioak gehien Durangon zabaldu dituzte (35), eta, ondoren, Elorrioren (5), Zaldibarren (4), Abadiñon (3), Atxondon (2) eta Iurretan (1). Beste herri batzuetan, berriz, 10 enpresa sortu ziren.

Garapen agentzia

Durangaldeko Behargintzak 2000. urtean ekin zion bere ibilbideari, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Eskualdeko Garapen Agentzia moduan. Helburuen artean, garapen ekonomikoa, gizarte garapena eta ingurumen garapena ditu.

DURANGALDEKO BEHARGINTZA

Laubideta kalea, 6 DURANGO
Tel.: 946 23 25 22
www.mdurango.org



“Nire sorkuntzak kalean ikusteak poztasun handia ematen dit”

Zein enpresa mota sortu duzu?

Poltsak eta motxilak diseinatzen ditut, Gora Kat markagaz. Diseinatzaile eta artisaua naiz. Legalki iaz jarri nuen enpresa martxan, baina, estraofizialki, bi urte daramatzat honetan.

Zerk ematen dizu poztasunik handiena ofizio honetan?

Kalean nire sorkuntzak ikustea; jendeak Gora Kat bat erosi gura duela entzutea; edo norbaitek Euskal Herrian barrena nire motxilak eta poltsak ikusi dituela esatea: Gasteizen, Iruñean, Donostian, Bilbon zein beste hainbat txokotan. Markak indarra hartu duela ikusten ari naiz. Horrek esan gura du nire marka ezagutarazten ari garela, merkatuan nabarmentzen ari dela, eta horrek harro sentiarazten nau.

Enpresa sortzerakoan, zer izan da zailena?

Dirua. Dena da dirua, ordaindu behar diren kuotak. Autonomo izateagatik kuota ikaragarri bat ordaindu behar da, hasieran



**GORANE
GUILLÉN BASAURI**

Gora Kat

bonifikazioak izan arren. Martxan hasi gura dugunok ordaindu behar duguna itzela da. Portugalen, adibidez, ez dute kuotarrik ordaintzen.

Proiektuak badu hazteko aukerarik?

Momentuz, osagarriekin nabil lanean: poltsak, karteratxoak, zigarro-kaxak... Arropagaz hastea gustatuko litzaidake, baina, pausoz pauso.

Behargintzako aholkulariek hasierako fasean lagundu dizute?

Teknikariak asko lagundu dit. Edozein zalantza entzuteko prest egon da beti, eta oraindik ere zerbait galdetu gura izanez gero, erantzungo lidakeela uste dut.

“Behargintzan zalantzak argitu ditzakezula jakiteak lasaitasuna ematen dizu”

Zertan diharduzu sortu berri duzun Nerekopi enpresan?

Argazki estudioa, arropen estanzazio pertsonalizatua eta kopistegia batzen dituen enpresa da. Durangoko Kalebarria kalean dago.

Noiztik zabilta bertan lanean?

2017ko ekainaren 5ean jarri nuen negozioa martxan.

Hasierako fase honetan, zailtasunik topatu duzu bidean?

Zailtasunik handiena alde ekonomikoa izaten da beti. Oraindik ere horixe da zailena.

Hazkunderako aukerarik egon daiteke?

Hiru alor batzen dituen enpresa izanda, garapenerako potentzial handia du. Ekintzaile batek beti du proiekturen bat buruan. Zailena horiek martxan jartzea izaten da.

Ekintzaile batek enpresa berri bat martxan jartzen duenean, zeren falta sumatzen du?

Laguntza gehiago, batez ere Gizarte Segurantzari dagokionez. Udalari ordaindu



**NEREA
BRIONES PEREZ**

NereKopi

beharreko tasak, PFEZ eta abar. Arrisku ekonomiko oso handia hartzen dugu gure gain. Nire kasuan bai behintzat.

Behargintzaren aholkularitzak bide horretan lagundu dizu?

Tresna oso erabilgarria dela nabarmendu nuke. Zer egin gura duzun, nondik nora jo dezakezun eta lortu gura duzuna argiago ikusten laguntzen dizute. Behargintzara deitu dezakezula eta sortzen zaizkizun zalantzez galdetu dezakezula jakiteak lasaitasuna ematen dizu, behin negozioa martxan dagoenean. Badakizu ahal duten guztian lagunduko dizutela.

“Itzela izan da gure DNA daraman proiektu bat zerotik sortzea”

Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Umeei zuzendutako espazio multifuntzionala da. Ingelesez jolasten gara, English play saioekin. Horrela, jolastuz ikasten dute umeek ingelesa, eta modu aktiboan. 3 urte arteko umeentzako espazio bat ere badugu goizetan; baita asteburuetako tailerrak ere.

Zein izan da lorpenik handiena?

Itzela izan da gure DNA daraman proiektu bat zerotik sortzea, gure ideietan oinarrituta. Lehen urte honetan ahalegin eta lan handia suposatu digu. Baina umeak gozaten eta gurasoak pozik ikustea gozamenaren izan da guretzat.

Zer izan da zailena?

Negozio arlo guztiak uztartzea izan da zailena. Enpresa bat sortzea ez da ordu batzuetan zerbitzu bat eskaintzea bakarrik. Bezeroak ikusten ez duen lan guztia egitea ere bada, eta honek uste baino denbora gehiago eskatzen du.

Zerbaiten falta sumatu duzue?

Enpresa bat martxan jartzerakoan



**AINHOA
ABARRATEGI eta NEIL BARNES**

Milú's House

proiektua zenbat eta landuagoa izan, hanka sartzeko aukerak murriztu egiten dira. Bide onetik zoazela esango dizun baten baten falta sumatzen duzu. Hasieran izugarria da, eta Behargintzak eta halako erakundeek asko laguntzen dute.

Zertan lagundu dizue gehien Behargintzak?

Orientazio zerbitzua eskaintzen dizute, ia arlo guztietan. Enpresa Planean eta bideragarritasun azterketan segurtasun handia eman ziguten. Diru-laguntzen inguruan ere asko lagundu ziguten.

anboto.iragarki laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/MEGOTOIAK	7 ASIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu: www.anboto.iragarki laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kortsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Durango. Etxea salgai Durangon, Juan de Itziar kalean . 60,40 m². Guztiz berriztuta. Sukaldea , egongela, hiru logela, komuna eta balkoia. Banakako kalefakzioa. Etorri ikusten. 129.000€. Tel.: 680 241 712

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK OSTALAR-ITZA

Lan bila nabil garbiketan edo sukaldean. Lan bila nabil taberna edo jatetxeetan garbiketa lanak egiten edo sukaldari laguntzaile moduan. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-47 78 53

LAN ESKARIAK ETXEKO LANAK

Lan bila nabil etxeko lanak egiten. Kanpoko langilea lan bila etxeko lanak egiten edo tabernetako garbiketa egiten. Baita pertsona nagusiak edo umeak zaintzen ere. Tel.: 632-19 68 33

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Nagusiak zaintzen ditut gauetan. Lan bila nabil gauetan nagusiak zaintzen. Euskalduna naiz. Tel.: 697-49 20 58

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 643- 46 73 26

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 643-13 01 35

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo tabernetako garbiketa lanetan. Lanaldi osoan, erdian, orduka edo kanpoko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 631-72 94 96

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita sukaldari laguntzaile moduan ere. Esperientzia dut. Tel.: 632-49 11 30

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Erreferentziakin berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612- 41 41 40

Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Erreferentziadun langilea lan bila pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-81 24 42

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, orduka, gauetz zein asteburuetan lan egiteko prest. Baita lanaldi osoan edo lanaldi erdian ere. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko langilea gauetz, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-36 74 03

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein ordukako langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-98 84 71

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila nabil. Barneko langilea, orduka edo lanaldi erdian lan egiteko prest. Eskarmentua dut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-06 20 76

Pertsona nagusiak eta baserriak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita baserriak zaintzen ere. Kanpoko langilea, lanaldi osoan, gauetz, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 634-60 09 60

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko zein barneko langilea, orduka, lanaldi oso edo erdian, gauetz zein asteburuetan lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-67 67 54

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 631-21 70 27

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka. Tel.: 631-25 58 69

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Gauetz zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 616-03 55 32

Pertsona arduratsua lan bila.

Pertsona arduratsua lan bila. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.:643-46 73 26

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Gauetz zein orduka lan egiteko prest. Tel.:642-55 16 29

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen baita garbiketa edo sukaldari lanetan ere. Kanpoko langilea, lanaldi osoan, lanaldi erdian, gauetz, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.:632-29 16 73

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Erreferentziak ditut eta esperientzia ere. Tel.:610-06 70 42

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita baserriak zaintzen edo margolari lanak egiten ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 603-40 68 27

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 631-06 20 76

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 602-84 42 82

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langile eskarmentuduna, orduka, asteburuetan, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Eskarmentudun langilea lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 620-60 71 84

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita baserriak zaintzen edo eraikuntza lanetan ERE. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 632- 11 45 93

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen zein ospitalean laguntzaile lanak egiten. Kanpoko zein barneko langilea orduka edo asteburuetan lan egiteko prest.

Tel.:602-01 61 86

Pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 632-32 58 04

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko langilea, gauetz edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska gaztea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 664-13 91 94

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, barneko langile moduan. Tel.: 632-74 88 77

Pertsonak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 643-46 73 26

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo ordukako langile moduan. Tel.: 610-06 70 42

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska eskarmentuduna eta arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 643-13 01 35

Andra euskalduna lan bila. Andra euskalduna pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila dabil. Baita etxeko lanak egiten ere. Tel.: 659- 08 81 85

Lan bila nabil etxeko lanak egiten. Lan bila nabil etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzen. Goizez zein arratsaldez bi orduz lan egiteko prest. Tel.: 655-85 79 95

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Lanaldi erdian edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632- 66 62 13 (Dalila)

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila dabilen barneko zein kanpoko langilea naiz. Tel.: 622-23 31 71

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein

kanpoko langilea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Tel.: 643- 47 46 15

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 631-54 03 31

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 643-18 85 39

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan bila nabil. Kanpoko, ordukako edo asteburuetako langile moduan. Tel.: 628-78 93 50

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Kanpoko, ordukako edo asteburuetako langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 682-18 12 74

LAN ESKARIAK IRAKASKUNTZA

Klase partikularrik eman eta haurrak zaintzen ditut. Lan bila nabil umeak zaintzen eta baita ere klase partikularrik (Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, frantsesa eta Yoga klaseak) ematen ditut. Tel.: 633677313

Klase partikularrik Durangon. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan zein Batxilergoan klase partikularrik eskaintzen dituen ingenieritzako ikasle euskalduna. Klaseak umeen beharrei egokituta. Tel.: 679769392

LAN ESKAINTZAK

LAN ESKAINTZAK PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Lanaldi erdian edo orduka lan egiteko prest. Eskarmentua dut umeak eta pertsona nagusiak zaintzen. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-71 91 70

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Baita zerbitzari moduan edo sukaldari laguntzaile moduan ere. Tel.: 632-63 24 16

Neska euskaldun bat behar dugu, umearen zaintzarako. Goizean gosaria eman eta umea eskolara eramateko, neska euskalduna behar dugu. 8:00etatik 9:30era astelehenetik ostiralera. Tel.: 653-74 80 01

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Atzo gure txapeldunak 11 urte bete ebazan. Zorionak, **Markel!**



Sineskeria gastronomikoak

Sineskeria bat, Euskaltzaindiaren arabera, "arrazoiaren aurkako" sinesmena da; hau da, oinarririk ez duen eta frogatu gabe dagoen zerbait sineste. Hainbat sineskeria dago elikagaien inguruan: antzinakoak elikagairik oinarrikoenei lotuta daude (ura, ogia, arrautzak, gatza...) eta modernoak ere bai (frutak, zerealak, tea, kafea...). Artikulu honetan, begiratu bat emango diegu horietako batzuei, eta funtsik gabeak direla erakutsiko dugu.

Baratxuria, banpiroak eta superbotereak

Baratxurien inguruko sineskeria asko dago hainbat lekutan. Gehien ezagutu eta hedatu denak dio gaitasuna duela banpiroak eta deabru mota guztiak uxatzeko. Literaturari zor zaio sineste hori, Drakula lanari hain zuzen (Bram Stoker-ek idatzi zuen, XIX. mende bukaeran). Ildo horretan, sineskeriak dio etxean baratxuri korda bat edukitzeak babesa eta zorte ona ematen duela. Gaur egun, beste ahalmen batzuk ere atxikitzen zaizkio baratxuriari: sendagai asko baino ahaltsuagoa omen da hotzeriak sendatzeko edo arterien osasuna hobetzeko. Zalantzarik gabe, baratxuria elikagai gustagarria eta osungarria da, baina Julio Basulto dietista-nutrizionistak dioen bezala, "pilula magikoaren pare jartzea ez dator bat ebidentzia zientifikoekin". Oso aspaldiko sineskeria batek euriarekin lotzen ditu arrautzak: esaten da elikagai horrek galarazi egin dezakeela euria egitea egun jakin batean (adibidez, ospakizun batean). Sineste hori modu askotan gauzatzen da. Batzuek, adibidez, landatu egiten dituzte; beste batzuek, berriz, klaratarren komentura eramaten dituzte.



Zorionak, **Aiur!** Martxoaren 21ean 5 urte egin zituen. Musu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, **Fernanda**, zure familia eta lagunuen partez. Musu bat!



Zorionak, **Gaizka**, guapisimo. Eskerrik asko zarena zarelako. Mila milioi mosu Edurnezuri eta hiru ipotxen partez. Mua.

Botikak

BARIKUA, 23 - 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 24 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

JAIO-OLABARRIETA
Errekakale 6. - ELORRIO

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 25 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 26 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 27 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 28 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 29 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA



Egin zaitez Anbotoren Lagun eta atera etekina txartelari!



Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558

f Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak

“Hariekin jolas egiten dugu; korapilo simple batetik abiatuta, diseinu konplexuagoak lantzen ditugu”

Amalur Bitxiak proiektua abiatu dute Leire Aiartzaguena iurretarrak eta Ainhoa Gangoitia abadiñarrak; kakorratza eta makramea erabilia, bitxiak egin eta saltzen dituzte

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Edozein sortzailearen nahia da sortutako horretatik bizitzeko aukera izatea. Hala ere, oraingoz, ofizio baino, afizio dute bitxigintza Leirek eta Ainhoak. Urrian abiatu zuten Amalur Bitxiak proiektua, ilusioz eta energia positiboz gainezka. Kakorratza eta makramea erabilia, belarritakoak, lepokoak, eskumuturrekoak... sortzen dituzte, eta beraien zati bat doa bitxi bakoitzean. Facebook eta Instagram bidez erakutsi eta saltzen dituzte bitxiak.

Nola murgildu zineten bitxigintzan?

Ainhoa Gangoitia: Duela urte bi Latinoamerikan zehar egindako bidaia batean, bitxiak egiteko askotariko teknikak ezagutu nituen; tartean, makramea. Umetatik ikasten dute han, eta asko harritu ninduen horrek. Bada, Abadiñora bueltatzean, bitxiak egiteko modu hori hona ekartzea pentsatu nuen. Askotan duten piezak dira, eta inguruko azoketan ez dira asko ikusten. Ideia komentatu nion Leireri, banekin eta berak ere teknika ezagutzen zuela.

Leire Aiartzaguena: Umetan korapiloekin pultsera piloa egiten nituen. Beti gustatu zait, eta makramearen teknikan murgilduz joan naiz. Neure kabuz ikasi dut. Ainhoak ideia bota eta esan nuen: “Zergatik ez?”

Amalur deitu diozue urrian abiatutako proiektu honi. Zer dago atzean?

A.G.: Amalurragaz kontaktuan, horrekiko errespetuan oinarritutako proiektua da gurea.

L. A.: Hala da. Artisau-lanak dira, gertuko norbaitek zuzentzat propio sortutako bitxiak, eta gure inguruarekiko jasangarriak. Ahalik eta

hondakin gutxien sortzeko, eskumuturrekoak amaitzean soberan geratzen diren hari puntak berrera-bili egiten ditugu, bestelako piezak egiteko. Eskulan zalea naiz eta uste dut eskuekin egindakoak bestelako balioa irabazten duela.

Nolakoa da sorkuntza prozesua?

A.G.: Hariekin jolas egiten dugu, eta korapilo simple batetik abia-

tuta, diseinu konplexuagoak lantzen ditugu. Baliteke pentsatutako irudia ez lortzea, baina zerbait polita sortu daiteke, naturak emandakoa erabiliz.

L.A.: Batzuetan diseinu bat dugu gogoan eta horri jarraitzen diogu, baina badira egunak lau hari hartu eta azken emaitza zein izango den jakin barik lanean hasten garenak. Ea zerk irtetzen duen...

Ez daude oso zabaldua kakorratzagaz eta makrameagaz egindako bitxiak...

A.G.: Ez. Harrituta ikusi dituzte gure lanak. Gutxitan ikusi dituztela diote, lan polita egiten dugula...

L.A.: Halako hippy ukitua dute, eta modu horretako azoketan gehiago ikusten dira. Baina zilarrezko piezak hedatuago daude orokorrean.

Belarritakoak, eskumuturrekoak, lepokoak... denetarik sortzen duzue?

A.G.: Gehienbat, belarritakoak. Horiek dute harrera onena. Baina lepokoak ere egiten ditugu, eskumuturrekoak... Larrua ere sartu izan dugu inoiz, artilea ere bai. Material berriekin esploratzen saiatu gara.

L.A.: Sasoiak badu eragina... lepokoak uda sasoiak dira gehiago.

Harriak ere erabiltzen dituzue.

A.G.: Bai, eta beraien baliabideak, energia, jatorria... hartzen ditugu kontuan. Azkenaldian, korralak erabili ditugu asko. Itsasoko mineralak. Turkesak ere harrera oso ona du. Korralak ditut gogokoak.

L.A.: Nik, turkesa. Bakoitzak barrutik datorrena sortzen du; diseinuan, koloreetan, erabilitako harrietan... igartzen da hori.

Latinoamerikan nolako esperientzia bizi izan zenuen, Ainhoa?

A.G.: Itzela! Neure burua ezagutu nuen, barruko harresi eta traba guztiak gaindituz. Jende oso maiteko-rra ezagutu nuen, beti gogoratu dudana. Boliviatik Usuaieraino joan nintzen, eta Patagoniatik Txilera. Gero, Boliviara bueltatu eta Erdialdeko Amerika zeharkatu nuen, Mexikora heldu arte. Jarraituko dut bidaiatzen.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren Irakaslea



Itxaropentsu nago

Anboton azaldu zen nire lehendabiziko artikuluak susto galanta sortu zuen ingurukoengan. Urtea igaro berria da ebakuntza luze eta gogor bat egin zidatela eta oraindik tratamenduan nago. Izenburua irakurri zutenean “Hil aurretik...” larritu egin ziren, agurtzen ari nintzela pentsatuz.

Jaungoikoari esker nire onera itzultzen ari naiz eta, irakurleon gustukoak badira, iritzi artikulu asko idazteko asmoa dut. Horri buelta emateko izenburu baikor hau. Itxaropen handia dut gaurko ume eta gaztetxoengan, ziur nagoelako heltzen doazen heinean beraien aurrekoek egindako akatsekin ohartuko direla eta egoerari onerako buelta emango diotela.

Familiak bere garrantzia eskuratu du eta umeak etxean heziko dira eta eskolan formatu, eta gurasoek, eskolak eta umeek bat egingo dute elkarri laguntzeko gizarte hobe eta justuagoa eratzeko.

Ingurugiroa berriz barrezka eta alai ikusteko neurriak hartuko dira eta denok ahal dugun guztia jarriko dugu zoriontasun hori fin-katzeko eta indartzeko.

Lur planeta honetan bizi garen guztion arteko desberdintasunak berdintzen joango dira eta oreka izango dugu.

Teknologia berriak egoki erabiliko dira eta beraiek gu menderatu beharrean guk menderatuko ditugu.

Zientziak aurrerapen handia egingo du eta bizidun guztiok osasuntsuagoak izango gara; horri esker, bizitzari etekin handiagoa aterako diogu.

Hau irakurtzen duenak agian pentsatuko du inozo edo “feliziano” bat naizela, baina ni oso baikorra naizenez, berriz azpimarratzen dut konfiantza guztia dudala gure gaztetxoengan, bestela akabo, eta azkenak atea itxi eta argia amatatu dezala.

Izan zoriontsu eta lagundu inguruko zoriontsuak izaten.



Leire Aiartzaguena
Bravo
Iurreta | 1994
Ainhoa Gangoitia
Mazorriaga
Abadiño | 1992
Amalur Bitxiak



**IBILTARI
HANDIA
(ARAIA-ORIO)**
uztailak 12-26
DBH3-DBH4-1.BATX
295€

2018
UDALEKUAK

(NAFARROA)
MENDIGORRIA
uztailak 17-28
LH3-LH4
280€



www.berbaro.eus // 946 202 540 // aisialdia@berbaro.eus // Pinondo plaza 1, 1. solairua (Durango)

